

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

KIROLEAN HEZI ETA EZ KIROLERAKO

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Lopez de Abetxuko Ruiz, Haizea.

ZUZENDARIA: Lizarraga Gomez, Iraitz.

2021

AURKIBIDEA:

AURKIBIDEA:	2
LABURPENA:	4
ABSTRACT:	4
1.SARRERA:	6
2.MARKO TEORIKOA:	7
2.1.Eskola Kirola.	8
2.1.1.Eskola Kirolaren ekarpenak.	9
2.1.2.Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuak.	14
2.2.Nola lortu ekarpen positiboak Eskola Kirolean.	16
2.3.Eskola Kiroleko monitoreen garrantzia.	18
2.4.Eskola Kiroleko monitoreen formakuntza.	19
3.HELBURUAK:	22
4.METODOLOGIA:	23
5.EMAITZAK:	25
5.1.Ikastetxeen Eskola Kirol programen nondik norakoak.	25
5.2.Eskola Kirola eta garapen integrala.	27
5.3.Eskola Kirola eta balioak.	28
5.4.Eskola Kirola eta Generoa.	29
5.5.Eskola Kirola eta Euskara.	29
5.6.Eskola Kirola eta arriskuak.	30
5.7.Eskola Kirola eta Gorputz Hezkuntza.	31
6.ONDORIOAK:	32
7.HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:	39
8.LANAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK:	43
9.BIBLIOGRAFIA:	45
10.ERANSKINAK:	50
I.ERANSKINA: 1.galdetegia: Eskola Kirol programaren nondik norakoak.	50
II.ERANSKINA: 2.galdetegia: Eskola Kirolaren aukerak.	52

GRAFIKOEN ZERRENDA:

- 1.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen formakuntza.
- 2.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen helburu nagusia.
- 3.Grafikoa: Monitoreen helburu nagusia formakuntzaren arabera.
- 4.Grafikoa: Alderdi fisikoak.
- 5.Grafikoa: Alderdi psikologikoak.
- 6.Grafikoa: Alderdi sozialak -harremanak-.
- 7.Grafikoa: Alderdi sozialak -integrazioa-.
- 8.Grafikoa: Eskola Kirolean transmititu daitezkeen balioen inguruko usteak.
- 9.Grafikoa: Hurrek helburu zorrotz edota altuak ezartzen dizkiete beraien buruei.
- 10.Grafikoa: Kirol lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten du.
- 11.Grafikoa: Gaur egun, oso adin goiztiarrean burutzen da kirol modalitate bateko espezializazioa.
- 12.Grafikoa: Egun haurrak oso arin hasten dira lehiatzen.
- 13.Grafikoa: Gorputz Hezkuntzako profesionalak eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan parte-hartzea garrantzitsua da.

LABURPENA:

Gaur egun, nagusiki sedentarioa den gizarte batean bizi gara non jarduera fisiko eza munduko hilkortasun tasaren arrisku faktore garrantzitsuenetako bat den. Hori horrela izanik, lan honetan Gernika-Lumoko Allende Salazar ikastetxeko eta Seber Altube ikastolako Eskola Kiroleko zenbait monitoren baliabide aberasgarri honen ekarpenez eta arriskuez kontziente diren ikertzen da, bi ikastetxe hauetako Eskola Kirol ereduaren ideia orokor bat eskuratuz. Ikerketa metodologia kuantitatiboan kokatzen da, zeinetan galdera-itxietan oinarritutako galdetegiak erabili diren datuak biltzeko tresna gisa. Emaitzei dagokienez, monitoren gehien (%63) helburua hezitzailea dela jaso da eta aztertutako zenbait aldagaiei dagokienez, hala nola, saioetan gailentzen diren aspektuei edota erabilitako metodologiari dagokienez, hezkuntzarekin edota kirolarekin zerikusia duen formakuntza jaso duten pertsonen esku-hartzea egokiagoa dela ikusi da. Horretaz gain, monitoren ados edota erabat ados daude Eskola Kirolak eskaintzen dituen onurekin, hala nola, garapen integralean eragiten duelarekin, balioak transmititzeko bide delarekin, euskara sustatzeko baliabide aproposa delarekin... Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuei dagokienez, monitoren hauetaz oso kontziente ez direla esan daiteke, hauekin erlazionatutako itemetan askotariko erantzunak jaso baitira. Ildo horretatik, Eskola Kirol eredu tradizionaletik (errendimendura bideratutakotik, emaitza prozesuari lehenesten zaionetik, garaipena lortzeko jarrera oldarkor eta bortitzak sortzen dituenetik, selektiboa denetik...) urrundu eta parte-hartzaileen formakuntza integrala bilatzera bideratutako eredu alternatibo batera hurbiltzeko proposamenak biltzen dira.

Hitz gakoak: Eskola Kirola, Eskola Kirolaren ekarpenak, Eskola Kirolaren arriskuak, Eskola Kiroleko monitorenak.

ABSTRACT:

Today, we live in a mostly sedentary society where lack of physical activity is one of the most important risk factors for the global mortality rate. Thus, this work investigates if several monitors of the School Sport of the schools Allende Salazar and Seber Altube of Gernika-Lumo are conscious of the contributions and risks of this enriching resource, acquiring a general idea of the model of School Sport of these two centers. The research is part of a quantitative methodology in which questionnaires based on closed-ended questions have been used as a data collection tool. As for the results, it was found that the objective of most of the monitors (63%) is educational and that in some of the variables analyzed, such as the aspects that prevail in the sessions or the methodology used, it was found that the intervention

of people who have received training related to education and/or sport is more appropriate. Furthermore, the monitors agree or totally agree with the benefits offered by the School Sport, such as the integral development, the transmission of values, the promotion of the Basque language... As for the risks that can be found in School Sport, it can be said that the monitors are not very aware of them, since in the items related to them very varied answers have been collected. In this sense, there are proposals to move away from the traditional model of School Sport (performance-oriented, which prioritizes the result to the process, which generates aggressive and violent attitudes towards victory, which is selective ...) and to approach an alternative model aimed at seeking the comprehensive training of participants.

Key words: School Sport, School Sport contributions, School Sport risks, School Sport monitors

1.SARRERA:

Gaur egun, erabat onartuta dago Eskola Kirolak hezkuntza emari handia duela, izan ere, eskolako kirol-jarduerek osasun, integrazio, lankidetzeta eta gainditze iturri gisa dituen onurei buruzko bibliografia zabala dago. Jakina da, Eskola Kirolak eginkizun erabakigarria izan dezakeela pertsonen bizitzan, baina, batez ere, eragin erabakigarria izan dezake haur eta gazteengan. Alde batetik, garapen fisiko, intelektual, emozional eta sozialean eragiten duelako eta bestetik, haurtzaroen edota gaztaroen izandako kirol bizipenen aztarna emozionalak, kirol-jarduera haur eta gazteen ibilbideetan presente egotean edo ez egotean eragin dezakeelako (Monteagudo, Ahedo, Doistua eta Richter, 2014).

Hori horrela izanik, testuinguru honetan Eskola Kirola ikuspuntu hezitzaile batetik lantzeko garrantzia azpimarratzen da; zeinetan kirol teknika eta taktikak irakasteaz gain, haur eta gazteei balioen oinarri sendoa ematen zaien. Hala ere, eskola jarduerak hau ongi bideratzen ez bada desberdintasuna, indarkeria, bazterkeria edo gaizki ulertutako lehia bezalako jarrera, portaera edota esperientzia pertsonal eta sozial desegokiak sor ditzake (Monteagudo, Ahedo, Doistua eta Richter, 2014).

Ondorioz, kontrajarrita dauden bi ereduren aurrean gaudela esan daiteke. Batetik, kirol federazioek bultzatutako ereduak dago, lehiaketa ezaugarriak dituen, hain zuzen. Eredu honetan, irabaztea da gauzarik garrantzitsua, hortaz, emaitza ona lortzea parte hartzea baino garrantzitsuagoa da. Monitoreek entrenatzaileen eskemak hartzen dituzte, hezkuntza eredu mekanikoa, analitikoa eta espezializatua erabiliz. Bestetik, ikuspuntu hezitzailea bultzatzen duen ereduak dago, zeinetan heziketak lehiaketak baino garrantzi handiagoa duen eta guztien partaidetza bilatzen den, diskriminaziorik gabekoa, alegia.

Beraz, zein eredutara hurbiltzen da egun ikastetxeetan aurkitzen den Eskola Kirola? Ikerketa txiki honetan Gernika-Lumoko bi ikastetxetako Eskola Kiroleko zenbait monitoren baliabide aberasgarri honek dituen ekarpenez eta arriskuez kontziente diren aztertzen da ikastetxe hauetan bultzatzen den Eskola Kirolaren ereduak ezagutzeko aukera emanez.

Lan hau ikerketari zentzua ematen dion marko teoriko batekin hasten da. Ondoren, lanaren helburuak zehazten dira eta jarraian, ikerketaren oinarri den informazioa biltzeko erabilitako metodologia azaltzen da. Ostean, galdetegi bidez jasotako emaitzak aurkezten dira. Behin datuak ezagututa emaitzak aztertu eta ondorioak biltzen dira eta atzetik hobekuntza proposamenak irakur daitezke. Azkenik, ikerketa txiki honen indarguneak eta mugak azaltzen dira.

2.MARKO TEORIKOA:

Gaur egun, erabat onartuta dago jarduera fisikoa edota kirola onura fisiko, psikologiko, sozial eta hezitzaile ugariren iturri izan daitekeela (Zulaika, 2006). Hala ere, jarduera fisikoaren eta ongizatearen arteko erlazioa ezaguna den arren, jende gehienak bizitza sedentarioa darama. Iraganean, bazirudien gazteek onartuta zutela pertsona fisikoki aktiboak zirelaren ideia baina gaur egungo testuinguru sozialak eta azken hamarkadetan izan diren aldaketa teknologikoen haurren jarduera fisiko mailan eragin nabarmena izan dute, gazteek nahiago baitituzte jarduera sedentarioak (telebista, ordenagailua, bideo-jokoak...) eta autoz lekualdatzea bizikleta ordez (Daley, 2002).

Hau oso kaltegarria da herritarrontzat, izan ere, jarduera fisiko eza munduko hilkortasun tasaren arrisku faktore garrantzitsuenetako bat da, laugarrena, hain zuzen ere (munduko heriotzen %6 eraginik). Soilik hipertentsioa (%13), tabako kontsumoa (%9) eta odolean glukosa gehiegi izatea (%6) kokatzen dira aurretik (Organización Mundial de la Salud, 2010).

Datu horiek ezagutz eta haurtzaroan ikasten diren ohiturak, nerabezaroan sendotu eta helduaroan errutina bilakatu daitezkeela (Merino eta González, 1999) kontuan hartuz, argi dago oso garrantzitsua dela haur eta gazteek egunero familia, eskola edota komunitate testuinguruetan jarduera fisikoa egitea jolasen, kirolen, desplazamenduen... bitartez (Organización Mundial de la Salud, 2010).

Hori horrela izanik, 5-17 adin tarteko haur eta gazteek egiten duten jarduera fisikoa onuragarria izan dadin Munduko Osasun Erakundeak ondorengo gomendioak ematen ditu:

1. Egunero gutxienez 60 minutuz jarduera fisiko lasaia edo kementsua egitea. 60 minutu horiek ez dira zertan jarraian egin behar.
2. Egunean egindako jarduera fisiko gehiena aerobikoa izatea, hau da, egindako jarduera intentsitate baxu edo ertainekoa izatea eta denbora luzez mantentzea.
3. Astean 3 egunetan hezur eta giharrak indartzen dituzten jarduera kementsuak egitea (Organización Mundial de la Salud, 2010).

Hala ere, azken urteetan egindako ikerketa baten emaitzek, mundu mailan nagusitzen diren gaixotasunetako bat (bularreko minbizia, koloneko minbizia, diabetesa...) izateko arriskua murrizteko, Munduko Osasun Erakundeak adierazitako gutxieneko jarduera fisiko maila hainbat aldiz handiagoa izatea ezinbestekoa dela iradokitzen dute. Izan ere, 1980-2016 urte arteko 174 artikulua aztertu ondoren, emaitza onenak 3000-4000 MET (ariketaren baliokidetasun metabolikoa) eskaintzen direnean lortzen direla adierazten du, Munduko Osasun Erakundeak 600 MET aipatzen dituen bitartean. Azken hau, astean 150 minutu

jarduera fisiko moderatu edo astean 75 minutu jarduera fisiko biziaren parekoa izango lirateke gutxi gorabehera (Kyu et al., 2016).

Beraz, hurrek Munduko Osasun Erakundeak emandako gomendio horiek bete ditzaten eta sedentarismoari aurre egin diezaioten Eskola Kirola baliabide aproposa izan liteke. Izan ere, jakina da Eskola Kirolak paper garrantzitsua bete dezakeela pertsonen bizitzean baina batez ere, bere eragina erabakigarria izan datekeela haur eta gazteengan. Alde batetik, fisikoki, psikologikoki, emozionalki eta sozialki garatzeko bide bezala eta bestetik, haurtzaroan eta nerabezaroan izandako bizipenen aztarna emozionalak etorkizunean jarduera fisikoa egitearen edo ez egitearen gakoetako bat izan daitekeelako (Monteagudo et al., 2014). Gainera, ez dugu ahaztu behar eskolek aukera gutxietako bat ematen dutela banako guztiak bere gain hartzeko (Fox, 1996).

2.1.Eskola Kirola.

Gaur egun Euskal Herriko Eskola Kirola zuzentzen duen legezko markoa Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea da (Monteagudo et al., 2014). Lege horretako 53.artikuluari, Eskola Kirola “ikasleek nahitaezko eskolatze-aldian irakas-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera antolatua” bezala definitzen da (Ortuzar, 2006).

Definizio ireki horretan oinarrituz gero, Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan dagoen ikasle batek goi mailako kirolean debutatzean Eskola Kirola egiten ibiliko zen eta ondorioz, goi mailako kirolean aritzen diren kirolari profesionalak ere. Zentzugabea da goi mailako kirolean jokatzeko duen ikasle bat zapatu goiz batean eskolarekin Gorbea mendira doazen ikasle taldearen marko terminologiko eta legegile berean kokatzea (Ortuzar, 2006).

Eskola Kirolaren eremua zehazteko asmoz, Ortuzar-ek (2006) honako definizio hau proposatzen du: “Eskola ordutegitik kanpo ikasleek, eskolaren erantzukizunaren menpe, helburu hezitzaileekin egiten dituzten jarduera fisikoen eta kirol jardueren multzoa”. Modu horretan helburu desberdinak dituzten Eskola Kirolaren (ikastetxeen erantzukizuna) eta Kirol Federatuaren (federazio eta klubuen erantzukizuna) mugak argi ikusten dira.

Eskola Kirolaren helburu nagusiak, aurretik aipatutako legean zehazten dira, izan ere, 55.artikuluari Eskola Kirolari buruzko programak eskola-heziketa integrala osatzera, nortasuna modu orekatu batean garatzera, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzera eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntzara bideratuta egon behar direla irakur daiteke (Monteagudo et al., 2014).

Beraz, Eskola Kirolean Heziketa Kirola, xede nagusizat garapen orekatuan laguntzea eta banakoaren balioak indartzea dituen (Blázquez, 1995) sustatu beharko litzateke.

2.1.1.Eskola Kirolaren ekarpenak.

Aurretik aipatu bezala, Eskola Kirolak, komunitate zientifikotik, zein arlo politiko, sozial eta legegiletik aitortutako gaitasun hezitzaile ikaragarria dauka (Monteagudo et al., 2014). Hortaz, asko izan daitezke jarduera fisikoak edota kirolak banakoarengan izan ditzakeen ekarpenak.

Garapen integrala:

Gizakia garapenaren adierazpen biosozialak, psikosozialak eta psikobiologikoak eragiten dituzten hiru dimentsioz (biologikoa, psikologikoa eta soziala) osatutako entitate oso bat da (Gutiérrez, 2004).

Gizakiaren eta hura garatzen den giroaren arteko zubi edo euskarri gisa eta giza operazio askoren arteko konexio gisa motrizitatea (jarduera fisikoa edota kirola) aurkitzen da. Honek hiru eremu nagusitan (biomotrizean, psikomotrizean eta soziomotrizean) eragiten du. Ondorioz, jarduera fisikoak edota kirolak eragina du gizakiaren garapen integralean (Gutiérrez, 2004).

• Onura fisikoak:

Jarduera fisikoaren edota kirolaren onura fisikoak oso ezagunak dira eta horien artean ondorengoak aurki daitezke:

- Gaixotasun kardiobaskularrak, tentsio arterial altua, koloneko minbizia eta diabetesa pairatzeko arriskuak txikiagotzen ditu.
- Gainpisua, obesitatea eta gorputz koipeen ehunekoa kontrolatzen laguntzen du.
- Hezurak indartzen ditu hezur-dentsitatea areagotuz.
- Giharrak indartzen ditu.
- Ahaleginak nekerik gabe egiteko gaitasuna hobetzen du (egoera fisikoa) (Merino eta González, 1999).
- Odol zirkulazioari, arnasketari edo digestioari loturiko mesedeak dakartza (Agirre et al., 2013b).

• Onura psikologikoak:

Arlo psikologikoari dagokionez, ikerketa desberdinek egituratutako eta planifikatutako jarduera fisikoa lau eremu nagusiren onura psikologikoekin erlazionatuta dagoela frogatzen dute, hala nola, aldarte hobea, estresaren murrizpena, autokontzeptu positiboagoa eta bizikaltate hobea (Gutiérrez, 2004).

Hori horrela izanik, ez da harritzekoa Estatu Batuetako Osasun Mentaleko Nazio Institutuak egindako baieztapenetan adostasuna egotea. Baieztapen horien artean, honako

hauek aurki daitezke: jarduera fisikoa edota kirola antsietate egoeren murrizketarekin erlazionatuta dago, depresioaren tratamendu profesionalerako elkarkide egokia izan daiteke, estresaren zenbait ezaugarri murrizten laguntzen du eta ondorio emozional onuragarriak ditu adin guztietan (Gutiérrez, 2004).

Horretaz gain, banakoak bere buruaz duen irudia eta autoestimua hobetzeko balio dezake eta adimena eta hainbat gaitasun kognitibo garatzen lagun dezake (Agirre et al., 2013b). Beraz, jarduera fisikoak edota kirolak ongizate psikologikoan eragiten duela esan daiteke (Merino eta González, 1999).

- Onura sozialak:

Azkenik, arlo sozialari dagokionez, ezagunak dira jarduera fisikoak edota kirolak talde desberdinen harremanetarako eta integrazioarako dituen onurak (Monteagudo et al., 2014). Jarduera hauek gizartekoitasuna sustatzen dute (Merino eta González, 1999), ekintza hauen izaera partehartzaileak elkarrekintza ezinbestekoa izatea eragiten baitu eta ondorioz, harremanetarako beharrezkoak diren trebetasunak eta portaerak lantzen dira. Gainera, talde bateko partaide sentitzea ahalbidetzen dute eta gure artean zabalduko arauak, balio moralak... barneratzen laguntzen dute (Monjas, Ponce eta Gea, 2015).

Hori horrela izanik, ez da berria jarduera fisikoak edota kirolak etorkinen (Heinemann, 2002; Medina, 2002), ezintasunak dituztenen edota bestelako arrazoi batzuegatik baztertuak diren pertsonen integrazioan laguntzen duela entzutea (Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Adibidez, Gutierrez Sanmartín et al. (2002)-ek (*in* Ruiz Omeñaca, Ponce de León, Sanz eta Valdemoros, 2015) bazterte arriskuan zegoen nerabeen talde batekin ikerketa bat egin zuten Hellison-ek erantzukizunean oinarritutako esku hartze programa egokituz eta emaitzek talde barruan onarpena lortu zela adierazi zuten, bereziki nabarmena parte-hartzaileen integrazio sozialari dagokionez.

Balioak:

Hainbat adituren ustez, ordea, balioetan hezten ez bada, ez dago benetako heziketarik (Ruiz eta Cabrera, 2004); benetako hezkuntzan sinesten badugu, hau da, eremu guztietan pertsonaren osotasunezko garapenari lagunduko diona, ezagupenezko garapenez gain (motriza, soziala, afektiboa eta emozionala) balioen sustapena garrantzitsua da.

Gauza ezaguna da kirola edota jarduera fisikoa oso testuinguru baliagarri eta aberatsa izan daitekeela balioak lantzeko, izan ere, etengabe erabakiak hartu behar izaten dira, jarduerak elkarlan handia eskatzen dute, emozioak puri-purian daude, jarduerak esperimintatu eta bizi egiten dira, hobetzea eta saiatzeari eskatzen dute, gatazka ugari sortzen

dira, tentazioak izan daitezke arauak urratuz garaipena lortzeko... (Brustad eta Arruza, 2002 *in* Zulaika, 2014).

Hortaz, ondo erabilia baliabide hauek, konfiantza, errespetua, lankidetzatza, erantzukizuna, umiltasuna (Prat, Font, Soler eta Calvo, 2004), joko garbia, kiroltasuna, elkarlana, taldearen interesak norberaren interesen aurretik jartzea, sakrifizioa, ardura, autokontrola, hobetzeko sena... bezalako balioak (Zulaika, 2014) bultzatzen dituzte.

Hala ere, behar bezala bideratuta eta zuzenduta ez badaude, norberekeria, gutxiespena, intolerantzia, ulertezintasuna (Prat, Font, Soler eta Calvo, 2004), harrokeria, handikeria, halabeharrez irabazi nahia, aurkarienganako gorrotoa (Gutiérrez, 1998), agresibitatea, baztertzeta, mespretxua, edozein baldintzatan irabazteko obsesioa (Prat, Soler, Garcia eta Pascual, 2002) sustatu dituzte.

Hori horrela izanik, egia da, sarri gurasoek zenbait kirol jarduerak haurrengan lehiakortasun handiegia pizten ote dutenaren kezka dutela (Agirre et al., 2013b); baina lehia ez da zertan txarra izan behar. Banakoak bere buruarekin lehiatzen duela ulertzen badu, ez da besteekin alderatzen, bere buruarekin alderatzen da eta alderatze horretan oinarrituz bere aurrerabidea eta hazkundea balioesten ditu. Hori horrela izanik, sustatu beharreko lehiaren ideia horretan ez dago aurkaririk eta garrantzitsuena ez da emaitza baizik eta norberaren onena ematea (Durán, 2013).

Ramón-Cortés-ek (2011) lehiaketa osasuntsua "saiatzera, gure onena ematera, aurrera egitera, gaitzetzeko estrategia berriak bilatzera, gure akatsetatik ikastera eta hobetzeko konponbideak bilatzera" eramatean gaitzeten dela dio eta baita ere "Hura gabe ez gaitzeteela aurrera egingo".

Bere aldetik, Alazne Agirrezabalaga prestatzaileak lehiak bere balioak dituela eta hezten lagun dezakeela dio. "kontrakoa irudi lezake, baina adiskidetasunarekin harreman estua du lehiakortasunak; konpromisoa eskatzen du; justizia; arauak betetzearen garrantzia nabarmentzen da; akatsetatik ikastea; talde bateko partaide sentiaraztea, lankidetzatza, partaidetzatza, elkarlana sustatzen ditu...". Arazoa emaitzari bakarrik begiratzea da "guraso askok, euren haurra eskola-kiroletik bueltan denean, 'zer egin duzue?' gaitzeten diote; eta ez, 'zer moduz pasa duzue?'. Guk transmititu nahi ditugun balioen inguruan sortuko bagenu elkarrizketa, aberasgarriagoa izango litzateke" (*in* Agirre et al., 2013b).

Beraz, esan daitezke, kirolak edota jarduera fisikoak bizitzako eremu guztietara hedatuko diren balioak garatzeko testuinguru egokiak eskaintzen dituela. Hala ere, ezin dugu pentsatu jarduera fisiko edota kirola egiteak besterik gabe balioen garapenean laguntzen duela. Kirola pertsonen sozializazio prozesuaren parte da baina ezinbestekoa da aspektu hau nahita

lantzea erlazioa positiboa izan dadin (Contreras, 2006). Izan ere, arreta jartzen ez bada, jokabide negatiboak, garatu nahi direnen kontrakoak, bultza daitezke aurrerago azalduko den bezala.

Generoa:

Generoaren ikuspegiari dagokionez, positiboki baloratzen dira esparru honetan emandako aurrerapenak. Lorpenetako bat Eskola Kirolean nesken parte-hartzea nabarmen areagotu dela da. Adituen ustez, gaur egun kirol jarduera gehiago dago, komunagoa dena, hau da, neskak eta mutilak gutxiago banatzen dituen. Hortaz, zentzu horretan aberatsagoa dela diote (Monteagudo et al., 2014).

Tradizionalki kirola gizonetzkoen jarduera izan da, ondorioz, emakumeek ez dute parte-hartze handirik izan eta gaur egun duten presentzia lortu al izateko zailtasun handiak gainditu behar izan dituzte. Gaur egun ere, jolaseko nahiz lehiako kirolean zein kirol profesionalean emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013).

Hau ez da ausazko ezta isolatutako gertakari bat. Emakumeen presentzia txikiagoa da publikotzat hartu izan diren espazioetan, hala nola, lan-munduan, politikagintzan eta kulturagintzan, kirolean... Beraz, esan daiteke, kirolean beste esparru batzuetan bezala emakumeek hainbat traba esplizitu eta inplizitu gainditu behar izan dituztela. Esaterako, desberdintasunak sorrarazi dituzten gizarte eta kultura estereotipoen ondoriozko aurreiritziak (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013).

Gizartetik kontzienteki edo inkontzienteki neskek jarduera fisiko gogorra gogoko ez dutela, lagunekin egotea irabaztea baino gustukoago dutela, kontaktu fisikoa saihesten dutela edota bigarren hezkuntzara iristean kirola utzi egingo dutelaren ideiak barneratzen dira. Neskak beraienganako interesa mutilenganako bezainbestekoa ez dela konturatzen dira eta agian kirola ez dela beraien berezko espazioa barneratzen dute mutilek baino errazago utziz (Azurmendi, 2017).

Talde bateko partaide izateak harreman dinamika ugari sustatzea, lidergoa kudeatzen ikastea, irabazten eta galtzen ikastea, helburu komun baterako lankidetzan aritzea, protagonismoa hartzen eta behar denean besteei uzten ikastea, inizatiba lantzea... bezalako onurak badakartza ere, egun, neskek ez dituzte Eskola Kirolaren bitartez hau guztia lantzeko mutilen aukera berdinak. Izan ere, bereziki taldeko kirolean mutilek hartzen dute protagonismoa eta askotan neskek beraien espazioa besterik gabe uzten dute. Hori horrela izanik, arlo honetan esperientzia duten eta hausnartu duten adituek batez ere taldeko kirolean nesken jabeakuntzarako espazioak sortzeko beharra azpimarratu dute (Azurmendi, 2017).

Gainera, nabarmentzekoa da komunikabideetan emakumezkoen kirolari zein denbora gutxi eskaintzen zaion eta baita horren kalitatea ere, izan ere, sarritan, ikusle gutxiko tartetean, kalitate gutxiko albistegietan... ematen dira. Komunikabideek emakumeek egiten duten kirola ez babesteko publiko gutxi, interes falta, instalazio txarragoak (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013), emakumeen lorpenak txikiagoak dira, audientziak ez du gustuko emakumeen kirola, gizonetzkoen kirolak ikusle gehiago lortzen ditu... (Vizcarra eta Garay, 2014) bezalako argudioak erabiltzen dituzte.

Komunikabideek emakume kirolariei ematen dieten babes mugatuak, modu negatiboan eragiten du neska eta emakume kirolariek eredu edota erreferente positiboak izaterako orduan; eta horrek, aldi berean, kirol-jardueretan aritzen diren beste neska edo emakumeen motibazioa desagerraraz dezake, beste batzuen lorpenez ikasteko aukera kentzen baitzaie (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013).

Horretaz gain, aipatzekoa da Alfaro eta kolaboratzaileek egindako ikerketa (2011: 25. or.) (in Vizcarra eta Garay, 2014). Bertan, prentsan gizon kirolarien inguruan erabiltzen diren adjektiboak aktiboa, oldarkorra, lehiakorra, indartsua, kontrolatua, bere buruarengan konfiantza duena, sortzailea, talentuduna, ausarta, lotsagabea, atletikoa, erasokorra, azkarra, erresistentea, erregularra... direla zehazten da. Emakumeari buruz erabiltzen diren adjektiboak, aldiz, polita, pasiboa, sexya, otzana, arina, alaia, konstantea, liluragarria, sinpatikoa, ederra... dira. Badirudi emakumea lehenik emakumea dela eta gero kirolaria, beraien janzkeraz edo irudiaz hitz egiten baita lorpenak bigarren plano batean utziz.

Hori horrela izanik, emakume kirolariak komunikabideetan behar bezala ez agertzeak emakumeen parte-hartzea eta etorkizun-aurreikuspena kaltetzen dituela esan daiteke. Ez dugu ahaztu behar hedabideek rol sozializatzaile handia dutela eta gizonetzkoak gehiago ordezkatzean eta genero-estereotipoak edo estereotipo sexistak helaraztean, kirol arloko genero-arraila iraunarazten laguntzen duela (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013). Beraz, esan daiteke aurrerapenak egin diren arren, oraindik badagoela zer egin arlo honetan.

Euskara:

Hernández-ek (2014) Eskola Kirolak eta Gorputz Hezkuntza irakasgaiak helburu berberak dituztenez, Eskola Kirola Gorputz Hezkuntzaren osagarri gisa ikus daitekeela adierazten du. Hori horrela izanik, Gorputz Hezkuntzak bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duen moduan Eskola Kirolak ere lagun dezake. Fernandez Barrionuevo-k (2011) dioen moduan ikasgaiaren izaera komunikatiboak eta eguneroko errealitate pertsonaletik gertuago dagoen irakasgaia izateak bigarren hizkuntza ikasteko motibazioa handitzen du.

Ildo beretik, Ramos eta Ruiz Omeñaca-k (2011) ikasgaiaren bizipen izaerak esperientzia errealekin erlazionatzeko aukera eskaintzen duela diote eta horrela, heziketa fisikoan egiten denak eskolaz kanpoko ekintzetan eragin dezakeela. Ondorioz, hemen, Gorputz Hezkuntzak eta Eskola Kirolak euskara sustatzen lagun dezaketela esan daiteke.

2.1.2.Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuak.

Aurretik aipatu bezala, askotan entzun izan da jarduera fisikoa edota kirola hezitzailea dela (Zulaika, 2006), baina gaitasun potentzial hezitzaile handia izan arren, edozein modutara buruturik ez da ziurtatzen hezitzailea izango denik (Agirre et al., 2013a).

Egunerokotasuneko jarduerak, praktikan pedagogikoak ez diren jarduerak sortzen direla erakusten dizkigute (Zulaika, 2006). Izan ere, askotan eskola ordutegitik kanpo burutzen diren jarduera hauek garatzean, heziketa asmoetatik urruntzeaz gain, ez dute erlazorik izaten eskola orduetan egindako Gorputz Hezkuntza saioen helburuekin (Macazaga, 2005).

Hau hein handi batean, entitateek eta Eskola Kirolaren alderdi betearazle gehienaz arduratzen diren pertsonak begirada hezitzaile horretan desiragarria izango litzatekeen moduan parte hartzen ez dutelako gertatzen da. Hori horrela izanik, marko legegiletik edota Eskola Kirolaren ikuskeratik babesten den heziketa jarrera progresiboki lausotzen dela esan daiteke (Monteagudo et al., 2014).

Beraz, jarduera hauek irizpide pedagogikoetatik baloratuta, praktikan gainditu beharreko zenbait arrisku eta aldagai kaltegarri dituzte (Zulaika, 2006):

Arriskuetaiko bat gehiegizko lehiakortasuna izan daiteke; kirolaren berezko ezaugarri hau neurrian erabiliz gero baliagarria da haurren parte-hartzea sustatzeko eta motibatze baina muturrera eramaten bada gehiegizko bihur daiteke. Egungo gizartean lehiakortasuna alor guztietan balio gorentzat ezarri da eta lehen emaitza jolasaren ezaugarri bat besterik ez bazen, egun, badirudi garrantzia duen atal bakarra bihurtu dela. Hortaz, askotan emaitzari gehiegizko garrantzia ematen zaio eta garaipena poz iturri bakartzat ezartzen da kontuan hartu gabe horrek frustrazio, dezepzio, atsekabe eta porrot sententzioak eragin ditzakeela eta sentimendu negatibo horiek nortasunaren beste eremuetara zabal daitezkeela (Zulaika, 2006). Gainera, zenbait autorek lehiaketetan garaipena lortzeko gehiegizko ahalegina jartzean, jokabide prosozialak murrizten eta jokabide antisozialak sustatzen direla diote (Gutiérrez, 2004). Ondorioz, balio hezitzaileetan eragin negatiboa izan dezakeela esan daiteke (Fraile, 2005).

Hurrek kirol jardueretan izaten dituzten helburuak ere kontu handiz zaindu behar dira. Sarri, hurrek helmuga oso zorrotz edota altuak ezartzen dizkiete beraien buruei, hala nola; garaipena, titular izatea, sailkapeneko lehen postua... (Arruza, 2002). Hori horrela izanik, aurrerago hain zabalduak diren porrot sentimenduak saihesteko komenigarria litzateke

haurrek beraien esku dauden helburuak finkatzen ikastea, hau da, eginkizunera zuzendutako motibazioan oinarritzea (norbere hobekuntzara, ikastera, gozatzer bideratutakoak) eta ez besteen jardueren menpe daudenak edo egorantz zuzendutako motibazioa oinarri gisa dituztenak (emaitza, garaipena...) (Agirre et al., 2013a; Arruza, 2002).

Horretaz gain, askotan, kirol-txapelketetan gehiegizko presioa egon ohi da. Horrek haurrengan estresa, ziurgabetasuna eta zalantza, egonezin psikologikoa eta herstura eragin dezake, izan ere, kirol jarduerak haurren arlo psikologikoan duen eragina jarduera horren inguruan sortutako giro sozialaren menpe egongo da (Zulaika, 2006).

Era berean, Zulaikak kirol lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten duela eta honek autokontzeptuaren garapenean eragin adierazgarria duela dio; besteek egindako balorapen hori jarduera fisikoan trebea izateari garrantzi handia ematen zaion unean eta kanpoko mezuekiko oso sentiberak diren garaian ematen baita. Horrek, esparru desberdinetan eragingo du, adibidez, nortasunean, harremanetan, bere buruaren onarpen mailan... (Zulaika, 2006).

Goizegi kirol batean espezializatzea ere arriskutsua izan liteke, haurrak kirol edo postu zehatz bakarrean aritzean pertsonaren aberastasun motorea mugatzen delako eta baita etorkizunerako kirol ohitura anitzak garatzeko aukera ere. Hautzaroan haurrengan garapen psikomotorea bere osotasunean jorratzea oso garrantzitsua da oinarrizko trebetasun motoreak ondo landuta izatean etorkizunerako oinarri sendoa emango diolako eta ondorioz, etorkizunean edozein kirol jarduerara egokitzeko gai izango delako (Zulaika, 2006). Horretaz gain, espezializazio goiztiarra jarduera fisikoa edota kirola egiteari uztearekin erlaziona daiteke. Haur edota gazteek jarduera hauek lagunekin egoteko, osasunerako onuragarria delako... egiten dituzte baina espezializazio goiztiarra errendimendua bilatzearen sinonimo gisa hartzen bada, ez dator bat haur edota gazteek hasieran dituzten asmoekin eta horrek praktika bertan behera uztea ekar dezake (Fraile, 2005).

Aukeratze prozesuek haurrengan duten eragina ere kontuan hartu beharko genuke, hainbat erakunde pribatu eta kirol elkarte gero eta goizago joaten baitira haur bila ikastetxeetara. Gaitasun onenak dituzten haurrak aukeratzen dituzte eta kopuru urria aukeratzen duten arren horrek eragin nabarmena du haurrengan. Alde batetik, aukeratuak izan ez diren taldekideengan autoestimua eta kirolean jarraitzeko motibazioa jaistearen eraginean du, partaidetza izugarri gutxituz eta zenbait kasutan haurrak hutsaren hurrengoaren direnaren sentsazioa izatea eraginez. Bestalde, aukeratuak direnen kasuan, asko kanporatuak izaten dira adinean aurrera doazen heinean eta horrek eragin negatiboak ekar ditzake haurrengan (Zulaika, 2006).

Azkenik, egungo ikuskizuneko kirolak gehiegizko lehiakortasuna, indibidualtasuna, harrokeria, tranpa, biolentzia... bezalako balio negatiboak bultzatzen ditu sarri. Goi mailako kirolariak izarrak dira haurrentzat, miretsi egiten dituzte eta orokorrean ispilu edota eredu eragina izaten dute umeengan. Hori horrela izaik, haurrak Eskola Kirolean beraien izarren jokaerak imitatzen saiatzen dira, eliteko kirolean ikusten diren hainbat portaera itsusi haurren kirolera zabalduz (Gonzalez, 2004).

Beraz, ikus genezake kirola edozein modutara buruturik ez dela ziurtatzen kasu guztietan egindako jarduera formatzailea eta hezitzailea izatea. Hau horrela izanik, aditu askok haur eta gazteen kirola aurpegi biko txanpona dela aipatzen dute (Agirre et al., 2013a).

Baina zer egin daiteke Eskola Kirolaren bitartez jarduera fisiko edota kirolaren ekarpen positiboak gozatzeko? Hurrengo lerroetan hori lortzeko kontuan izan beharreko zenbait ideia aipatuko dira.

2.2.Nola lortu ekarpen positiboak Eskola Kirolean.

Hasteko, argi izan behar dugu jarduera fisikoa edota kirola ez dela berez hezitzailea, autore gehienentzat baliabide hau ez da bereziki positiboa edo negatiboa, honen ekarpenak erabileraren menpe daudelako (Agramonte, 2011). Ondorioz, Eskola Kirola ikastetxean burutzeak ez du heziketa osagarria bermatzen, ikuspegi hezitzailea ez baitago agentearen izaeraren menpe baizik eta begiradaren menpe (Monteagudo et al., 2014).

Esandakoa kontuan hartuz, jarduera fisikoa edota kirola benetan elementu hezigarri bihurtu nahi bada ezinbestekoa da burutuko diren jardueren baldintzak irizpide hezigarrietan oinarritzea (Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Izan ere, jarduerak antolatzerakoan kontuan hartutako irizpide, ikuspegi eta helburuek baldintzatuko dute parte-hartzaileek jasoko dituzten ondorioak (Zulaika, 2006).

Oraindik leku askotan zabaldua dagoen Eskola Kirolaren ereduak ez du bermatzen gazteek etorkizunean bizi-ohitura gisa jarduera fisikoarekiko zaletasuna bereganatzea (Telama, 1985; García Fernando, 1990 *in* Zulaika, 2006). Dorleta Ugalde Eusko Jaurlaritzako Gaztedia eta Kirol zuzendaritzako kirol teknikariak dioten moduan, haurrek kirola norabait iristeko, irabazteko edo izarrak izateko egiten dute. Elitea ez da errealitatearen ispilu, gutxi batzuk soilik iristen baitira goiko postuetara. Gehiengoak beste arrazoi batzuegatik egiten dugu kirola eta hurrei arrazoi horiek transmititzen eta sinestarazten saiatu behar dugu. Hori horrela izanik, bestelako kirol eredu batzuk eraiki nahi badira, garrantzitsua izango litzateke kirolean dena ez dela galdu edo irabazi transmititzea; ondo pasatzeko, lagunekin egoteko eta norbere buruarekin hobeto sentitzeko modua ere badela (Agirre et al., 2013a).

Errealitatean jasotako emaitza honek, eskolan guztiontzako kirola aldarrikatzera bultzatzen gaitu, hau da, txapeldunak sortzera bideratutakoa baino gehiago, guztien partaidetza bilatzen duena eta gaitasun eskasekoak baztertzen ez dituen (Zulaika, 2006). Horretaz gain, gaitasun motorrak ez ezik, intelektualak, afektiboak eta sozialak ere hobetu beharko lituzke (Agramonte, 2011).

Multikirola, ondo bideratuta baldin badago, proposamen interesgarrietako bat da haurtzarotik kirol ohiturak ezartzeko. Multikirolak hurrei kirol modalitate desberdinak probatzeko aukera eskaintzen die eta modu horretan hurrek kirol bakoitzak eskaintzen dien aukerak eta eremu bakoitzean dituzten gaitasun eta trebetasunak ezagutuko dituzte. Halaber, multikirolean, lehiakortasunaren aurrean izaera parte-hartzailearen nagusitasuna, jarduera guztien izaera mistoa eta naturarekin harremanetan egotea bezalako ezaugarri espezifikoak nabarmendu daitezke (Monteagudo et al., 2014).

Gainera, multikirolak espezializazio goiztiarra ekiditen lagun dezake eta hori onuragarria da banakoaren garapen integralerako. Alazne Agirrezabalagak dioen moduan, ahalik eta kirol gehienak egin behar dira, aniztasuna haurrentzat mesedegarria izango delako. Izan ere, kirol desberdinekin atal desberdinak lantzen dira, motrizitate fina, lodia, oreka, mugikortasuna, koordinazioa... Baina aniztasun hori, ikuspegi psikologiko eta sozialetik ere onuragarria da. Haurrak kirol bat aukeratzen duenean ez du soilik kirol bat aukeratzen, testuinguru bat eta talde giro bat ere aukeratzen ditu. Hori horrela izanik, gero eta kirol gehiago egitean zirkuluak handitzen dira eta zirkulu handitze horrek izaera eta balio diferenteak dituzten erreferente gehiago izatea ahalbidetzen du (*in* Agirre et al., 2013b).

Bestalde, aurretik aipatu bezala, kirola edota jarduera fisikoa balioak sustatzeko baliabide esanguratsuak izan daitezkeela kontuan hartuz, helburu hori lortze aldera neurriak hartu beharko lirateke (Zulaika, 2014).

Amat eta Batalla-ren (2000) esanetan, kirolak balioetan hez dezan honako ezaugarri hauek izan behar ditu: autoezagutza sustatu eta autokontzeptua hobetu; gatazkak konpontzeko elkarrizketak bultzatu; guztien partaidetza sustatu; autonomia pertsonala bultzatu; hanka sartzeari baliabide hezitzaile gisa erabili; kideen arteko desberdintasunak errespetatu eta onartu eta joko, entrenamendu eta lehiaketa egoerak elkarbizitza hobetzeko erabili.

Gainera, garrantzitsua da jarduerak berak emaitzak baino garrantzi handiagoa izatea. Hori horrela izanik, balio eta jarrera aldaketa gertatuko bada, alde aurretik helburu horretara bideratu eta planifikatu beharko da jarduera (Zulaika, 2014).

Generoaren esparruari dagokionez, Vizcarra-k eta Garay-k (2014) hainbat ikerketetan (Angulo, 2007; Diez Mintegui eta Guisasola, 2003; Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009; Garay eta Egibar, 2009 eta 2012) agertzen diren ideietan oinarrituta ondorengo proposamenak egiten dituzte: Alde batetik, kirolaren ikuspegia aldatzea, gehienetan txapelketako kirola bultzatzen baita dibertsio hutsa alde batera utziz, hau da, ikasteari lehentasuna eman beharko litzaioke irabaztearen aurretik. Horretaz gain, kirolean kolaborazioa eta kooperazioa bultzatu behar direla ere aipatzen da. Beste alde batetik, monitoreek nesken baloreak eta usteak uler ditzaten genero-ikuspegitik formazioa eman beharko litzaietela esaten da eta baita ere komunikabideekiko sentsibilizazioa eta formazioa beharrezkoak direla, kontsumitzen dutena aztertzen duten gazte kritikoak sortzeko.

Komunikabideak balioak transmititzeko eragile eraginkorrak direla kontuan hartuz, kirol-arlo guztietan emakumeen presentzia islatu beharko lukete. Zehazki emakumeekin irudi positiboa sustatu beharko lukete, genero estereotiporik gabekoa eta arrakasta pertsonaleko, profesionaleko eta sozialeko eregu gisa (“Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana”, 2013).

Orain aipatutako ideiak nesken parte hartzea areagotzeko pentsatuak badira ere, aipatzekoa da Zurbaran ikastetxean orokorrean haurren parte hartzea handitzeko erabiltzen duten estrategia. Ikastetxe honetan, kirol jardueretan ikasle kopuru gehienak parte hartzea bilatzen dute eta eskainitako kirol modalitateak haurren interes, lehentasun eta trebetasunetara egokituz lortzen dute. Hori horrela izanik, koerabakia kontuan hartzeko balioa da, ikasleek urtean zehar egingo dituzten jarduerak aukeratzean hauen inplikazioa lortzen delako (Monteagudo et al., 2014).

2.3.Eskola Kiroleko monitoreen garrantzia.

Orain arte esandako guztia garrantzitsua bada ere, ezin dugu ahaztu Eskola Kirolean parte hartzen duten agente desberdinek (antolatzaileek, gurasoek, lagunek, monitoreek...) honi ematen dioten ikuspegia erabakigarria izango dela (Gutiérrez, 2003).

Monitoreak heziketa jasotzen duten banakoekin zuzeneko harremanetan dauden neurrian agente gaketzat har daitezke, haurren jarduerak gidatzen dituzten pertsona hauek haurrengan duten eragina ikaragarria baita (Monjas, Ponce eta Gea, 2015).

Eskola Kiroleko monitoreen esku-hartzeari dagokionez, gehienbat irakaskuntza tradizionala erabiltzen jarraitzen da, izan ere, emaitzari parte hartzeari baino garrantzi handiagoa ematen zaio, irakaskuntza zuzen aurkikuntza bidezko irakaskuntza baino gehiago erabiltzen da eta teknikaren hobekuntza testuinguratu gabe irakasten da ikasleei egoera motor

berriak bilatzeko ulertzea, pentsatzea eta hausnartzea eskatzen dieten jolasen egoera errealak erabili ordez (Blázquez, 2008).

Hau, Eskola Kirolean aritzen diren hurrekin lan egiten duten pertsonen formazio faltagatik izan daiteke, esku-hartze on bat profesionalen prestakuntza egoki baten menpe baitago (Campos, Mestre eta Pablos, 2006; Griffin eta Butler, 2005 *in* González eta Campos, 2010). Hori horrela izanik, askotan pertsona hauek ez dituzte errekurtso didaktiko eta metodologiko nahikoak izaten eta horrek hauen esku hartzea behar bezala ez garatzea eragiten du (González eta Campos, 2010), jardueren heziketa eta osasun ikuspegia oztopatuz (Campos, 2007).

Lleixà-k (2005) eskolaz kanpoko jarduera fisiko edota kirol jarduerak irakasten dituzten pertsonen titulazioa jarduera fisiko eta kirolarekin zenbat eta erlazonatuago egon, ikasleen parte hartzea sustatzeko teknika eta estrategia metodologikoen erabilera hobea izango dela, elkarrizketaren aldeko eta konfiantzazko giroa sortuko dela eta era askotariko estrategia antolatzaileak edukiko direla defendatzen du.

Adibidez, Fraile-k (2001) aisialdiko jardueren proiektu baten inguruan egindako ikerketan Eskola Kiroleko entrenatzaileen (gehienbat federazioko entrenatzaileez osatutako taldea) eta Gorputz Hezkuntzako irakasleen esku-hartze didaktikoen arteko aldeak zehazten dira. Lehenengoen metodologia zuzena erabiltzen duten, lehia izaera bultzatzen duten eta ikasleen alderdi fisikoak, jarrerazkoen eta intelektualen aurretik nabarmentzen dituzten bitartean, bigarrenek ikasleen parte hartze handiagoa ahalbidetzen dituzten estrategiak erabiltzen dituzte, jarduera desberdinen garapenean sor daitezkeen arazo posibleak konpontzeko elkarrizketa bultzatuz.

Beraz, Eskola Kirolaren testuinguruan kokatzen garenean, entrenatzailea hezkuntza eragiletzat hartzea, hau da, entrenatzaileaz hezitzaile gisa hitz egitea gakoetako bat da. Ezin dugu ahaztu, ikasleen kirol jarduerak bideratzen dituen pertsona lehenik haurren formakuntzaren arduraduna dela eta ez soilik bere emaitzena. Monitorea ez da haurrak fisikoki, teknikoki eta taktikoki prestatzearen arduraduna soilik; esplizituki eta inplizituki zenbait balore transmititzen dituen hezitzaile bat ere bada (Monjas, Ponce eta Gea, 2015).

2.4.Eskola Kiroleko monitoreen formakuntza.

Aurretik aipatu bezala, Eskola Kirolean erabiltzen den irakaskuntza estilo ohikoena irakaskuntza zuzena da (Fraile, de Diego eta Boada, 2011). Eredu tradizionalari egiten zaion kritika nagusietako bat irakaskuntza analitikoa eta jolasaren testuinguru errealetik isolatutako irakaskuntza bultzatzea da (Giménez, Abad eta Robles, 2009). Hori horrela izanik, Castejon-ek (2005), irakaskuntza eredu tradizionalari ikasleak egiten ari direna ez ulertzearen eta egiten

ari diren horrek zertarako balio duen ez jakitearen arriskua egotz dakiokela dio. Beraz, funtsezkoa izango lirateke kirol-prestakuntzako programetan entrenatzaileen irakats estiloak aktiboagoak bihurtzen lagunduko duten irakats-ikas estrategiak sartzea (Fraile, de Diego eta Boada, 2011).

Europako testuinguruan egindako hainbat azterlanetan, kirol-teknikariek hainbat funtzio betetzen dituztela nabarmentzen da; hala nola, hezitzailea, kudeatzailea, antolatzailea, animatzailea eta liderra (Fraile, de Diego eta Boada, 2011). Ortuzar-ek (2004), ordea, hauen zeregin nagusia irakasle izatea izan beharko litzatekeela aipatzen du, betiere prestakuntza pedagogikoa eginez. Hortaz, beharrezkoa da kirol-irakasleak alderdi teknikoak irakasteko prestatuta egoteaz gain, ikasleen garapen afektibo, emozional eta sozialean arreta jartzeko prestatuta egotea (Castañer et al., 2006). Hala eta guztiz ere, kirol-teknikarien prestakuntza-programetan ez dira adibidez, haien irakaskuntza-gaitasunak hobetzeko beharrezkoak diren gaitasun didaktikoak jasotzen (Fraile, de Diego eta Boada, 2011).

Hori horrela izanik, alde batetik, garrantzitsua izango litzateke monitoreen prestakuntzan, kirolariekiko komunikazioa (entzute aktiboa) erraztuko duen prestakuntza-programa bat aurreikustea. Izan ere, elkarriketari esker ikasle bakoitzaren beharrak hobeto ezagutu daitezke eta baita autoezagutza prozesuak sortu ere (Fraile, de Diego eta Boada, 2011).

Horretaz gain, interesgarria da hasierako prestakuntzatik entrenatzaileengan eguneroko jardunean modu aktiboagoan eta sortzaileagoan jarduten lagunduko dien espiritu hezitzailea sustatzea. Esaterako, kirol-hastapeneko berrikuntzaren adibideetako bat jokabide tekniko eta taktiko bakarkakoak eta kolektiboak ikasteko eredu ulerkorra garatzea da. Izaera kognitiboa duen jarduera hau ikaskuntza aktiboaren gakoetako bat da, ikasleei kognitiboki inplikatzeko eskatzen baitie (Fraile, de Diego eta Boada, 2011).

Ez dugu ahaztu behar ikaslegoaren ikasketa egokian laguntzeko ikasketa esanguratsua garatzea ezinbestekoa dela, zeinetan ikaslea informazio prozesu eraikitzaile baten bidez prozesatzeko eta aztertzeko gai den. Modu honetan, ikaslea ezagutza eskuratuz doa irakasleak ikasleei gogoetan gidatzeko helburuarekin planteatutako arazoak konponduz (González eta Campos, 2010). Hau egin ahal izateko, ezinbestekoa da monitoreak ikaslearen ikasketa prozesuan bitartekari bat izatea (Blázquez, 2008).

Bestalde, funtsezkoa da monitoreen formakuntzak pentsamendu gogoetatsu eta kritikoa sustatzea, horrek hobeto ezagutzea ahalbidetuko baitie beraien praktiken eta sinesmenen arteko koherentzia handiagoa bilatzeko aukera emanez. Ikasleengan pentsamendu kritikoa garatzeko aukera ere eskainiko die, ikasleei konponbideak bilatzeko sentikorragoak izaten eta

beraien jarduerekin arduradunak izaten irakatsiz, akatsak irakaskuntzaren parte izan behar baitute (Fraile, de Diego eta Boada, 2011).

Eskola Kirolean aritzen diren begirale askok ez dute hezkidetzan oinarritutako heziketa jaso eta ondorioz, ez daukate kirola hezkidetzan oinarrituz irakasteko prestakuntza egokia. Beraz, esan daiteke beraien lanean genero ikuspegia sartzeko ahalmena, bakoitzaren ardurapean edo hausnarketa mailaren baitan geratzen dela (Azurmendi, 2017). Hori horrela izan ez dadin, ezinbestekoa da monitoreen formazioan genero-perspektiba lantzea (Vizcarra eta Garay, 2014).

Azkenik, interesgarria litzateke hasierako prestakuntza-programetan monitoreek elkarlanean haien praktikei buruz hausnartzen ikastea, horrela ezagutza partekatua sortu daitekeelako jakintza komunaren ezagutza handitzeko aukera emanaz. Era berean, interesgarria litzateke hasierako prestakuntzatik at entrenatzaileak beraien proposamen didaktikoak, esperientziak, arazoak, irtenbide posibleak... elkarlaneko komunitateetan beste kide batzuekin partekatzera ohitzea (Fraile, 2008).

Hala ere, monitoreen prestakuntzan aurrerapauso handiak eman badira ere, oraindik badago zer egin Eskola Kirolean inplikaturako monitoreen prestakuntza-profila egokia izan dadin eta kirol-arloko ezagutza teknikoek haurren prestakuntza integrala sustatzera bideratuta daudenak estal ez ditzaten (Monteagudo et al., 2014).

Beraz, esandako guztia kontuan hartuz, Eskola Kirolean, ikastetxeen helburu hezitzaileak ezagutzen dituzten (Romero, 2001) eta jarduera fisiko eta kirol eremuko ezagutza pedagogiko eta metodologiko zabalak dituzten pertsona prestatuenak aritu beharko ziren. Honela, ikasleek bizitza guztian zehar jarduera fisiko edota kirol jarduerarekiko lotura iraunkor eta positiboa izatea ahalbidetuko luketen planteamendu eta estrategia egokiak zehaztea lortuko baitzen (González eta Campos, 2010).

Azkenik, garrantzitsua izango litzateke egiten denaren ebaluazio bat egitea, horri esker aurretik zehaztutako helburuetatik urruntzen diren alderdiak ezagutu daitezkeelako eta baita prozesuan zehar zein etorkizunari begira beharrezko zuzenketa mekanismoak ezarri ere (Monteagudo et al., 2014).

3.HELBURUAK:

Jarduera fisikoa eta kirola haur eta gazteen hezkuntza integralaren funtsezko elementuak dira, ez soilik sozializatzeko eta balio positiboak transmititzeko dituzten funtzioengatik, baizik eta hauen helburu garrantzitsuenetako bat ikasleen etorkizuneko kirol-jarduera sustatzea delako. Aipatzekoa da etapa hau erabakigarria dela bizitza osoan iraun dezaketean eta osasunari eta bizi kalitateari dagokien onurez gozatzeko aukera ematen duten kirol ohitura eta bizi estilo aktiboak barnerratzeko. Izan ere, adin horretan hasi ezean, zaila da jokabide horiek gero finkatzea (González, 2005).

Hori horrela izanik, lan honen helburua galdetegien bitartez Eskola Kirolean aritzen diren monitoreak baliabide honek haurrengan izan ditzakeen ekarpen positiboak eta arriskuez kontziente diren ezagutzea da, ikastetxeetan sustatzen den Eskola Kirol eredu ezagutzeko.

Helburu nagusi hori lortze aldera hainbat azpi-helburu zehaztu dira, hala nola, monitoreak Eskola Kirolaren bitartez haurren garapen integralean eragin daitekeela badakiten eta hori bilatzen duten jakitea; monitoreak balio positiboak (joko garbia, arauetiko errespetua...) transmititzea eta negatiboak (agresibitatea, mespretxua...) ekiditea bilatzen duten jakitea, monitoreei baliabide hau euskara sustatzeko aproposa iruditzen zaien eta euskara sustatzen saiatzen diren jakitea, monitoreak Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuak (gehiegizko lehiakortasuna, espezializazio goiztiarra...) ezagutzen dituzten jakitea...

4.METODOLOGIA:

Eskola Kirolean aritzen diren monitoreek baliabide horrek eskaintzen dituen aukerez kontziente diren eta aukera horiez baliatzen diren ezagutzea helburu gisa duen ikerketa kuantitatibo txiki honetan, Gernika Lumoko Allende Salazar ikastetxe publikoko eta Seber Altube ikastolako zenbait monitorek parte hartu dute.

Ikerketa hau egin ahal izateko informazioa bi galdetegiren bitartez lortu da (ikusi I. eta II. eranskinak). Galdetegietako bat, Eskola Kirol programaren nondik norakoak izenekoak, ikastetxe bakoitzeko Eskola Kirolaren informazio orokorra (helburua, inplikaturako agenteak, kirol eskaintza...) ezagutzeko erabili da. Hori horrela izanik, galdetegi hau ikastetxe bakoitzeko Eskola Kirolaren arduradunak betetzeko sortua izan da. Hau ia osotasunean *Aportaciones al Modelo de Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Bizkaia* (2014) izeneko ikerketan erabili den galdetegi batean oinarritzen da, izan ere, jatorrizko galdetegi horri aldaketa txiki batzuk baino ez zaizkio egin, ikerketa honen beharretara hobeto egokitu zedin.

Beste galdetegia, Eskola Kirolaren aukerak izenekoak, aldiz, Eskola Kirolean aritzen diren monitore desberdinek marko teorikoan aipaturako zenbait punturen inguruan pentsatzen dutenaren eta egiten dutenaren informazioa jasotzeko erabili da. Hau, aurrekoa ez bezala, ia osorik sortua izan da, hau da, nagusiki Likert eskalan oinarritzen den galdetegi honetako itemak, marko teorikoa egiteko irakurritako artikuluen esaldiak abiapuntu bezala hartuz sortu dira.

Likert eskala ikerketetan datu kuantitatiboak neurtzeko edo biltzeko erabilitako tresna bat da; zehatzago esanda, maila ordinala duen eskala gehigarri bat da. Mota honetako galdetegiak subjektuaren erreakzioa eskatzeko erabiltzen diren item batzuek osatzen dute, hori horrela izanik, jarrerak neurtzeko eta inkestatuek baieztapen batekiko duten adostasun-maila ezagutzeko aukera ematen du. Tresna hau, bereziki baliagarria da pertsonak beraien iritzia zehaztea nahi den egoeretan erabiltzeko, erantzun-kategoriek inkestatuek baieztapenekiko sentitzen dituzten sentimenduen intentsitatea antzemateko balio baitu (Blanco eta Alvarado 2005; Fabila, Minami eta Izquierdo, 2012).

Gaur egun pandemia bat bizitzen ari garela kontuan izanik, eta honi aurre egiteko asmoz hartutako neurrietako bat konfinamendua izan dela kontuan hartuz, galdetegiak *Google Formularios* erabiliz egin dira.

Aipatzekoa da, *Google Formularios* aplikazioak dituen abantailak asko direla. Alde batetik, eskaintzen dituen galdera motak (erantzun laburrak, aukera anitzak, eskala lineala...) oso erabilgarriak eta osoak dira. Horretaz gain, irudiak; bideoak eta edukiak gehitzeko aukera ematen du. Bestalde, denbora asko aurrezten du zenbatzeko prozesuan eta grafikoak

sortzerakoan; izan ere, automatikoki laburpen bat sortzen baitu grafikoekin. Hori gutxi balitz, plataforma honek, jasotako erantzun guztiak online kalkulu-orri fitxategi batean gordetzen ditu eta horrek, galdetegi sortzaileari azterketa- eta interpretazio-ekintza gehiago egiteko aukera ematen dio. Adibidez, pertsona zehatz baten erantzunak berrikustea; informazioarekin hainbat iragazki egitea; erantzun-fitxategia hainbat formatutara esportatzea (Microsoft Excel-era esaterako)... Gainera, ez dugu ahaztu behar tresna hau erabat doakoa dela eta ez duela mugarik (Abundis, 2016).

Behin galdetegiak sortuta, jarraitutako prozedura ondoregoa izan da. Lehendabizi egindakoa email bidez ikastetxeekin harremanetan jartzea izan da, ikastetxe bakoitzeko Eskola Kiroleko arduradunaren telefono zenbakia edo emaila lortzeko. Ondoren, ikastetxe bakoitzeko Eskola Kiroleko arduradunekin harremanetan jarri eta galdetegiak bete eta zabaltzeko eskatu zaie, betiere zertarako erabiliko diren azalduz.

Erantzunak jaso direnean Microsoft Excel programarekin aztertu dira, programa honen bitartez bi galdetegietako azpi atal bakoitzean jasotako emaitzen ehunekoak atera dira, gero, lortutako ehuneko horiek interpretatu ahal izateko.


5.EMAITZAK:

Atal honetan, aurretik aipatutako Gernika-Lumoko Allende Salazar ikastetxeko eta Seber Altube ikastolako Eskola Kiroleko arduradunek (ikastetxe bakoitzeko arduradun bana) eta hamalau monitorek betetako galdetegiaren bitartez jasotako emaitzak bildu dira.

5.1.Ikastetxean Eskola Kirol programen nondik norakoak.


Allende Salazar ikastetxean Guraso Elkartearen arduratzen da Eskola Kirolaz, bere esku geratzen baitira ekintzen eskaintza eta antolakuntza. Hemen, Eskola Kirolaren helburua kirola da eta aisialdira bideratuta dagoela esan daiteke. Ikastetxean kirol-koordinatzaile bat dute ekintzak antolatzeaz eta hauen jarraipen bat egiteaz arduratzen dena; hau, kirol teknikaria da eta irakasle formakuntza jaso du. Kirol eskaintzari dagokionez, 8 kirol modalitate eskaintzen dira, horietako 3 bakarkako kirolak dira eta 5 kolektiboak. Eskaintza horretan multikirola dago bertan parte hartzeko gehieneko adina 10 urte izanik. Kirol espezializaziorako adina 8 urtetan zehazten da. Ez da lehiaketa ez-ofizialik egiten eta lehiaketa-ofiziala futboleant eta saskibaloian egiten da. Horretaz gain aipatzekoa da ez dela inolako ebaluaziorik egiten.

Seber Altube ikastolan Guraso Elkartearen arduratzen da Eskola Kirolaz, bere esku geratzen baitira monitoreak bilatzea, ordutegiak, aurreikuspenak, taldeen antolamenduak, guraso batzarrak, kirol arduradunarekin kontaktua, diru kontuak... Hemen, Eskola Kirolaren helburua ikasle gehiengoa kirol ezberdinetan aritzea da eta kirol partaidetzara bideratuta dagoela esan daiteke. Ikastetxean kirol-koordinatzaile bat dute aurreikuspenaz, ikasleekiko kontaktuaz, urte hasierako fitxez, partiduen ordutegiez, guraso elkartearen harreman zuzena izateaz... arduratzen dena. Hau, ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako irakaslea da eta Gorputz Hezkuntzan lizentziatua dago. Kirol eskaintzari dagokionez, 4 kirol modalitate eskaintzen dira eta laurak taldeko kirolak dira. Eskaintza horretan multikirola dago, bertan parte hartzeko gehieneko adina 10 urte izanik. Kirol espezializaziorako adina 8 urtetan zehazten da. Saskibaloian, futboleant, Herri Kiroletan eta Heziki topaleta-ketan (multikiroleant) lehiaketa ofizialak daude, aldiz, mendi irteeretan eta topaketetan lehiaketa ez ofizialak. Horretaz gain, aipatzekoa da aurreko ikastetxean bezala, ez dela inolako ebaluaziorik egiten.




1.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen formakuntza.

Eskola Kirolean aritzen diren monitoreen formakuntzari dagokionez, parte hartutako monitoreen %25a Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua da, %13a kirol teknikaria, %25ak monitoretza ikasi du, %13ak Lehen Hezkuntza, %21a oraindik ikasten dago eta %14ak erantzun baliogabea eman du (ikusi 1.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen formakuntza).



2.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen helburu nagusia.

Monitoreek Eskola Kirolean duten helburu nagusiari dagokienez, %63ak hezitzailea dela adierazi du, %14ak osasuna hobetzea, beste %14ak harremanak lantzea eta gainontzeko %7ak jolasa (ikusi 2.Grafikoa: Eskola Kiroleko monitoreen helburu nagusia). Datu hauek monitoreek jasotako formakuntza kontuan hartuz aztertzen badira, ez da alde handirik ikusten hezkuntzarekin edota kirolarekin zerikusia duen formakuntza jaso duten pertsonen eta oraindik ikasten edo formakuntza zehaztu ez dutenen artean. Lehenengo kasuan, %67ak helburu nagusia hezitzailea dela zehaztu du eta %33ak beste aukera bat (harremanak, jolasa) hautatu du. Bigarren kasuan, %60ak hezitzailea aukeratu du eta %40ak osasuna hobetu (ikusi 3.grafikoa: Monitoreen helburu nagusia formakuntzaren arabera).



3.Grafikoa: Monitoreen helburu nagusia formakuntzaren arabera.

Saioretan gailentzen diren aspektuei dagokionez, jarrerazko alderdiak nagusitzen direla esan daiteke, %64ak nabarmentzen baititu. Gainerako %36ak, aspektu teknikoak gailentzen direla adierazi du. Datu hauek jasotako formakuntzarekin erlazionatuz gero, kirolarekin edota hezkuntzarekin zerikusia duen formakuntza jaso duten pertsonen %89ak jarrerazko alderdiak aipatzen ditu eta %11k alderdi teknikoak. Aldiz, oraindik ikasten ari diren edo formakuntzarik

zehaztu ez duten pertsonen %20ak jarrerazko alderdiak nagusitzen direla zehazten du eta %80ak alderdi teknikoak.


Eskola Kirolean aritzen diren monitoreen orientabide metodologiko nagusia aginte zuzenaren eta ikerkuntza edo aurkikuntzaren nahaste bat da, %57ak bi teknikak erabiliz irakasten duela zehaztu baitu. Aginte zuzena %29ak aipatu du eta ikerkuntza aurkikuntza teknika %7ak soilik. Datu hauek jasotako formakuntza kontuan hartuz aztertzen badira, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten, izan ere, hezkuntzarekin edo kirolarekin zerikusia duen formazioa jaso duten pertsonen %22ak aginte zuzena erabiltzen du eta %56ak aginte zuzena ikerkuntza edo aurkikuntza bidezko irakaskuntzarekin batera. Oraindik ikasten ari direnen edo formakuntza zehaztu ez dutenen kasuan %40ak aginte zuzena erabiltzen du eta %60ak biak.

Eskola Kirolak ematen dituen aukeren inguruko itemei dagokienez, monitoreek emandako erantzunak ondorengoak izan dira:

5.2. Eskola Kirola eta garapen integrala.

Galdetegia bete duten monitoreak ados (%14) edo erabat ados (%86) daude Eskola Kirolak garapen fisikoan laguntzen duelaren eta osasuna hobetzen duelaren ideiarekin. Onura psikologikoei dagokienez ere, ados (%28,5) edo erabat ados (%71,5) daude haurren konfiantza edo autoestimua hobetzeko aukera emateaz gain, jarduera fisikoak onura emozional onuragarriak dituelarekin. Onura sozialekin erlazionatutako itemak aztertuz gero, "Eskola Kirolak jendea ezagutzeko eta beste batzuekin harremanetan jartzeko aukerak eskaintzen ditu" baieztapenean %14ak ados dagoela adierazi du eta %86ak erabat ados. "Eskola Kirolak integrazioa errazten du" baieztapenean, aldiz, %36a ados dago eta %64a erabat ados.

Monitoreei beraien saioetan 3 alderdi hauek lantzen dituzten galdetxean honako emaitzak jaso dira: Alderdi fisikoari dagokienez, %36a ados eta %57a erabat ados dago haurrak jarduera




4. Grafikoa: Alderdi fisikoak.


fisikoak osasunean duen garrantziaz eta onurez kontziente izan daitezen hezten dutelaren ideiarekin; aldiz, %7a ez dago ados. 4. Grafikoa monitoreek Eskola Kirolaren bitartez alderdi fisikoak lantzearen inguruan uste dutenaren (teoria) eta egiten dutenaren (praktika) arteko aldea ikus daiteke. Alderdi psikologikoen

kasuan, %57a ados eta %36a erabat ados dago momentu oro haurrek jarduera fisikoa emozio

positiboekin erlaziona ditzaten bilatzen hezten dutelarekin. 5.Grafikoan monitoreek Eskola Kirolaren bitartez alderdi psikologikoetan eragitearen inguruan uste dutenaren eta beraiek alderdi horietan eragiten duten ideien arteko desberdintasuna ikus daiteke. Azkenik, alderdi sozialaren inguruan emandako erantzunak aztertuz gero, %29a ados dago harremanak sustatzen dituelarekin eta %71 erabat ados. Talde osoaren beharretara egokitzeko planteatutako jardueretan aldaketak egiten dituztelaren ideiarekin, ordea, %43a ados dago eta %50a erabat ados. Aurreko bi alderdietan bezala, hurrengo grafikoetan (6. eta 7.Grafikoetan, alegia) teoriaren eta praktikaren arteko aldea ikus daiteke.




5.Grafikoa: Alderdi psikologikoak.



6.Grafikoa: Alderdi sozialak -harremanak-.

5.3.Eskola Kirola eta balioak.


Balioei dagokienez, monitoreak antzeko iritzia dute Eskola Kirolaren bitartez joko garbia, araukiko errespetua, denon artean saiatzea, taldearen interesak norberaren interesen aurretik jartzea... bezalako balio positiboak transmititu daitezkeelarekin; izan



7.Grafikoa: Alderdi sozialak -integrazioa-.

ere, %21a ados dago eta %79a erabat ados. Eskola Kirolaren bitartez harrokeria, handikeria, halabeharrez irabazi nahia, agresibitatea, mespretxua... bezalako balio negatiboak transmititu daitezkeelaren ideiarekin, berriz, iritzia anitza da. %14a erabat desados dago; %21a desados;

%14a ez ados/ez desados; %21a ados eta %29a erabat ados. Hurrengo grafikoan monitoreek Eskola Kirolaren bitartez transmititu daitezkeen balioen inguruan uste dutena ikus daiteke.



8.Grafikoa: Eskola Kirolean transmititu daitezkeen balioen inguruko usteak.


Monitoreak transmititzen saiatzen diren balioekin erlazionatutako galderetan lortutako emaitzak honakoak dira: Joko garbiarekin, errespetuarekin, taldeko interesak norberaren interesen aurretik jartzearekin, laguntzarekin eta lankidetzarekin zerikusia duten itemetan lortutako emaitzak oso antzekoa dira; %59a erabat ados dago balio positibo horiek transmititzen saiatzen delaren ideiarekin, %36a ados eta %5a ez ados/ez desados. Gorputz zainketarekin eta higieనేarekin erlazionatutako galderari dagokionez, %57ak ez ados/ez desados adierazi du, %36ak ados eta %7ak erabat ados. Garaipena eta talde nagusitasuna bezalako balio negatiboekin zerikusia duten galderetan %28,5a erabat desados dago, %32a desados, %28,5a ez ados/ez desados eta %11a ados. “Haurrak erneak izan daitezen saiatzen naiz” baieztapenean %29ak ez ados/ez desados dagoela adierazi du, %43ak ados eta %29ak erabat ados.

5.4.Eskola Kirola eta Generoa.

Generoaren gaian monitoreen %43a ados eta %21a erabat ados dago Eskola Kirolean neska eta mutilen parte hartzea antzekoa delarekin. %21a, aldiz, desados dago eta %14a ez ados/ez desados.

5.5.Eskola Kirola eta Euskara.

Bestalde, %86a erabat ados dago Eskola Kirola euskara sustatzeko gune aproposa delarekin eta %14a ados. Monitoreei Eskola Kirolaren bitartez euskara sustatzen saiatzen diren galdetzean lortutako ehunekoak berdinak dira.




9.Grafikoa: Haurrek helburu zorrotz edota altuak ezartzen dizkiete beraien buruei.

5.6.Eskola Kirola eta arriskuak.


Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuen inguruko itemetan askotariko erantzunak lortu dira. Monitore gehienak %57a, hain zuzen ere, ados (%36) edota erabat ados (%21) daude gehiegizko lehiakortasunaren inguruan galdetzean; aldiz, %38ak kontrakoa pentsatzen du (%7a erabat desados eta %21a desados). Haurrek beraien buruei ezartzen dizkieten helburuak zorrotzak edota altuak diren galdetzean, %57 inguruk baietz adierazi du, hala ere, badira zenbait monitore, %21 hain zuzen ere, ezetz esan dutenak (*ikusi 9.Grafikoa: Haurrek helburu zorrotz edota altuak ezartzen dizkiete beraien buruei*).

“Kirol lehiaketan gehiegizko presioa egon ohi da” baieztapenean %14ak erabat desados dagoela zehaztu du, %29ak desados, %36ak ez ados/ez desados, %14ak ados eta %7ak erabat ados. “Kirol lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten du” baieztapenean ere aniztasuna egon da emaitzetan 10.Grafikoan ikus daitekeenez.




10.Grafikoa: Kirol lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten du.

Monitoreen %50ak Eskola Kirolean espezializazio goiztiarra ematen dela uste du; aldiz, %35ak ez du horrela ikusten (*ikusi 11.Grafikoa: Gaur egun, oso adin goiztiarrean burutzen da kirol modalitate bateko espezializazioa*). Erakunde pribatuek eta kirol elkarteek haurrak gero eta goizago hartzen dituzten galdetzean %72ak ados (%36) edota erabat ados (%36) dagoela adierazi du. Hala ere, badira kontrako erantzunak hautatu dituztenak ere (%7ak desados eta %7ak ere erabat desados).



11.Grafikoa: Gaur egun, oso adin goiztiarrean burutzen da kirol modalitate bateko espezializazioa.

“Ikuskizun kirolean ikusten diren hainbat portaera itsusi haurren kirolera zabaltzen dira” baieztapenean %14ak erabat desados dagoela adierazi du, %36ak ez ados/ez desados, %29ak ados eta %21ak erabat ados. 12.Grafikoa ikus daitekeenez, haurrak goizegi lehiatzen hasten diren galdetzean jasotako erantzunak ere askotarikoak izan dira.



12.Grafikoa: Egun haurrak oso goiz hasten dira lehiatzen.

5.7.Eskola Kirola eta Gorputz Hezkuntza.

Azkenik, monitore gehienak (%43) erabat ados daude Gorputz Hezkuntzako profesionalak eskolaz kanpoko jardueren programazioan eta diseinuan parte-hartzea garrantzitsua delarekin. %14a erabat desados dago, %21 desados, %14 ez ados/ez desados eta %7a ados (ikus 13.Grafikoa: Gorputz Hezkuntzako profesionalak eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan parte-hartzea garrantzitsua da).



13.Grafikoa: Gorputz Hezkuntzako profesionalak eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan parte-hartzea garrantzitsua da.

6.ONDORIOAK:

Hurrengo lerroetan, aurreko atalean ezagututako datuak aztertu eta ateratako ondorioak azaltzen dira.

Hasteko, bai Allende Salazar ikastetxean bai Seber Altube ikastolan heziketa ikuspuntua nahiko presente dagoela esan daiteke. Alde batetik, bi ikastetxeetako kirol-koordinatzaileak hezkuntza munduarekin harremana dute, irakasle formakuntza jasotako kirol-teknikari bat eta Gorputz Hezkuntzako irakasle bat baitira koordinatzaileak. Bestetik, eskola hauetan, beste gauza batzuen artean, hurrek jarduera fisikoarekiko edota kirolarekiko atxikimendua izatea bilatzen dutela esan daiteke, helburuak kirola edota ikasle gehiengoak kirol ezberdinetan aritzea direlako; eta orokorrean aisialdira eta kirol partaidetzara bideratuta daudelako.

Aipatutako ideia hauek esanguratsuak dira, bi ikastetxe hauetako Eskola Kirola nolabait, hain beharrezkoa den ikuspegi hezitzaile hurbil daitezkeela aurreikustea ahalbidetzen baitute. Ikastetxeetako kirol-koordinatzaileek hezkuntza ikuspegia ezagutzea funtsezkoa da, ikuspegi hezitzailea ez baitago agentearen izaeraren menpe baizik eta begiradaren menpe (Monteagudo et al., 2014). Gainera, gaur egungo gizartea nagusiki sedentarioa dela kontuan hartuz eta sedentarisismoa munduko hilkortasun tasaren arrisku faktore garrantzitsuenetako bat dela jakinik (Organización Mundial de la Salud, 2010), hurrek jarduera fisikoarekiko edota kirolarekiko atxikimendua izatea bilatzea onuragarria da. Ez dugu ahaztu behar haurtzaroan ikasten diren ohiturak, nerabezaroan sendotu eta helduaroan errutina bilakatu daitezkeela (Merino eta González, 1999).

Ikastetxe bakoitzeko kirol eskaintzari dagokionez, aipatzekoa da bi ikastetxeetan multikirola egiteko aukera dagoela 10 urtera arte bada ere. Proposamen hau interesgarria da hurrei kirol ezberdinek eskaintzen dizkieten aukerak eta eremu bakoitzean dituzten gaitasunak ezagutzeko parada ematen dielako, Eskola Kirolean aurki daitezkeen espezializazio goiztiarra bezalako arrisku bati aurre egitea ahalbidetuz (Monteagudo et al., 2014). Gainera, jarduera hauetan lehiaren aurrean parte hartzeak duen nagusitasunak (Monteagudo et al., 2014), gehiegizko lehiakortasunarekin edota kirol txapelketetan egon ohi den gehiegizko presioarekin erlazionatutako arriskuak (Zulaika, 2006) ekiditen lagun dezake.

Bestalde, harritzekoa da ikastetxe batean ez bestean inolako ebaluaziorik ez egitea, izan ere, urtean zehar egindakoaren ebaluaketa bat egitea onuragarria da aurretik zehaztu diren helburuetatik urruntzen diren alderdiak ezagutzeko eta baita hobetu edo aldatu beharreko alderdiak identifikatzeko ere (Monteagudo et al., 2014).

Aurretik aipatu bezala, bi ikastetxe hauetan ikuspuntu hezitzailea presente dagoela esan daiteke, koordinatzaileek esandakoaz gain, Eskola Kiroleko monitoreek orokorrean helburu

hezitzailea nabarmendu baitute. Marko teorikoan esan bezala, Eskola Kirolak izan dezakeen ahalmen hezigarria kontuan hartuz, bertan parte hartzen duten agente desberdinen (kirol-koordinatzaileen, monitoreen, gurasoen, haurren...) helburu nagusia hezitzailea izan beharko litzateke. Hau horrela izanik, mugimendu gaitasunak zein gaitasun intelektual, afektibo eta sozialak garatzen lagundu beharko luke (Agramonte, 2011) eta kirol teknika eta taktikak irakasteaz gain, haur eta gazteei balioen oinarri sendoa eman beharko lieke (Monteagudo et al., 2014). Beraz, osasuna, jolasa, hezkidetzazko parte hartzea, diskriminaziorik eza... sustatuko lituzke eta parte hartzeari azken etekinari edo emaitzari baino garrantzi handiagoa emango lieke.

Monitoreek beraien helburua zehaztean, hezkuntza edota kirolarekin zerikusia duen formakuntza jaso dutenen eta oraindik ikasten ari direnen edo formakuntza zehaztu ez dutenen artean alde handirik egon ez bada ere, beste aspektu batzuetan desberdintasunak ikusi dira. Bi talde hauen arteko alde handiena saioetan gailentzen diren aspektuetan ikusi da argien. Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatutakoek, kirol teknikariek, Lehen Hezkuntzan aritzeko ikasitakoek edota monitoretza ikasitako gehiengoek jarrerazko alderdiak aipatu dituzten bitartean, formakuntza zehaztu ez dutenen edota ikasten ari direnen artean alderdi teknikoak nagusitu dira.

Erabilitako metodologiari dagokionez, nolabaiteko desberdintasuna ikus daiteke. Hezkuntza edota kirolarekin zerikusia duen formakuntza jaso duten gehienak aginte zuzenaz eta aurkikuntza edota ikerkuntza bidezko metodologiaz baliatzen diren bitartean, formakuntza zehaztu ez dutenen eta oraindik ikasten ari direnen artean aginte zuzena edo aginte zuzena eta aurkikuntza edota ikerkuntza bidezko metodologia erabiltzen dutenen arteko aldea ez da oso handia izan, bien nahastea nagusitu arren.

Ikus daitekeenez, monitoreen formakuntzak eragina du hauen pentsatzeko eran eta esku-hartzeetan, izan ere, esku-hartze egoki bat profesionalen kualifikazio zuzenaren menpe dago (González eta Campos, 2010). Hortaz, Lleixà-k (2005) eskolaz-kanpoko jarduera fisiko eta kirol-jarduerak irakasten dituzten monitoreen formakuntza jarduera fisiko eta kiroleko titulazioekin zenbat eta erlazionatuago egon, ikasleen parte hartzea sustatzeko teknika eta estrategia metodologikoak hobeto erabiliko direla, elkarriketarako eta konfiantzarako giro egokia sortuko dela era askotariko antolaketa-estrategiak ezagutuko direla dio.

Ondorioz, bi ikastetxe hauetako proposamen asko Eskola Kirolerako egokiak diren aspektuetara asko hurbiltzen direla esan daiteke, orokorrean helburu hezitzailea, jarrerazko alderdiak eta aginte zuzena eta aurkikuntza edota ikerkuntza metodologia nabarmendu baitira.

Aurretik esan bezala, helburua hezitzailea izateak, saioak edota jarduerak haurren garapen integrala eta balioen transmisioa kontuan hartuz planteatzen direla adierazten du. Jarrerazko aspektuak aspektu tekniko eta taktikoei gailentzeak ere, eredu tradizionaletik urruntzeko pausoak eman direla adierazten du, izan ere, eredu tradizionalan trebetasun teknikoen irakaskuntza gailentzen da. Horretaz gain, ikaskuntza esanguratsua bilatzen dela esan daiteke, irakaskuntza mota hau ikerkuntza edota aurkikuntza bideko metodologiaren erabileran oinarritzen baita. Ikasketa esanguratsuan, ikaslea ezagutzak eskuratuz doa irakasleak ikasleei gogoetak gidatzeko helburuekin sortutako arazo egoerak konponduz. Ondorioz, ikaslea informazioa prozesu eraikitzaile baten bidez prozesatzeko eta aztertzeko gai da (González eta Campos, 2010).

Eskola Kirolak ematen dituen aukerei dagokienez, monitoreak ados edota erabat ados daude baliabide honen bitartez ikasleen garapen integralean eragin daitekeelarekin, hau da, Eskola Kirolaren bitartez haurren arlo fisikoan, psikologikoan eta sozialean eragin daitekeela uste dute. Izan ere, bat datoz Eskola Kirolak garapen fisikoan laguntzen, osasuna hobetzen, haurrei beraien konfiantza eta autoestimua hobetzeko aukerak eskaintzen, ondorio emozional onuragarriak izatea ahalbidetzen, beste batzuekin harremantzeko aukerak eskaintzen eta integrazioa errazten duelarekin. Beraz, esan daiteke ikastetxe hauetako monitoreak kontziente direla baliabide honen bitartez, haurren garapen integralean eragin daitekeela eta hori egiten ahalegintzen direla.

Garapen integrala, ikasleei beraien alderdi mentalean, memoristikoan, errepikakorran... hezteaz gain, beraien ezaugarri, baldintza eta ahalmen guztiak garatuz pertsona gisa hez daitezen beharrezko elementuak eskaintzea bilatzen duen irakats estilo bat dela esan daiteke. Hori horrela izanik, dena-delakoa irakastean garapen integrala kontuan hartzea garrantzitsua da. Gainera, prestakuntza integralak, batez ere, gizonaren eta emakumearen erabateko errealizazioa lortzea helburu duten prozesuak bideratzeko balio du; helburua gizabanako etiko, zoriontsu, ase eta sozialki arduratsuak sortzea baita (Guerra, Rubio eta Silva, 2014).

Balioen garapenari dagokionez, monitoreak bat datoz joko garbia, araukiko errespetua, denon artean saiatzea, taldearen interesak norberaren interesen aurretik jartzea... bezalako balio positiboak transmititu daitezkeelarekin. Bestalde, %50ak harrokeria, handikeria, halabeharrez irabazi nahia, agresibitatea, mespretxua... bezalako balio negatiboak transmititzeko arriskua dagoela uste duten arren, %35 inguru ez dator bat.

Askotan, konturatu gabe ezkutuko mezuen bitartez nahi ez diren balioak, ideiak... transmititzen dira. Hortaz, orokorrean balio positiboak transmititzen eta negatiboak ekiditen saiatu arren, zenbait monitorek aurretik aipatutako balio negatiboak transmititu dezaketelaren arriskuaz kontziente ez izatea posible dela esan daiteke eta orduan, horietan arreta ez jartzea.

Ezin dugu esan kirol-praktika hutsak balio egokiak garatzen laguntzen duenik, harremana positiboa izan dadin alderdi hori nahita landu behar da. Izan ere, arreta jartzen ez bada, jarrera negatiboak, garatu nahi diren balioen kontrakoak, sustatzea gerta liteke (Monjas, Ponce eta Gea, 2015).

Monitore gehienek joko garbia, errespetua, taldeko interesak norberaren interesen aurretik jartzea, laguntza, lankidetzat, hobetzeko sena... bezalako balio positiboak transmititzen saiatzen direla aipatu dute. Hala ere, gorputz zainketarekin eta higieinarekin erlazionatutako balioen kasuan, ez dute oso argi zein neurritan inplikatzeko diren edo ez. Aldiz, garaipena eta talde nagusitasuna sustatzen ez diren balio bezala aipatuak izan dira.

Haurrak erneak izan daitezkeen saiatzen diren galdetzean ia monitore guztiek ados edota erabat ados daudela aipatu dute. Hala ere, item honetan ez dira espero ziren emaitzak jaso. Hau, zehatzago, lanaren indargune eta ahulguneen atalean azalduko da.

Aipatutako balio hezitzaileak kirol jarduerari esker landu ahal badira ere, ez dira beti eskuratzen (Zulaika, 2006), oso zaila baita gizartean eta komunikabideetan hain errotuta dagoen goi mailako kirolak bultzatzen dituen balioei aurre egitea. Izan ere, egungo ikuskizun kirolak gehiegizko lehiakortasuna, indibidualtasuna, harrokeria, tranpa, biolentzia... bezalako balio negatiboak bultzatzen ditu askotan. Gainera, goi mailako kirolariak haurrentzat izarrak direnez, ispilu eta eredu eragina dute haurrengan. Ondorioz, Eskola Kirolean beraien izarren jokoerak imitatzen saiatzen direnez, elitean ikusten diren portaera itsusiak Eskola Kirolera zabaltzen dira (Zulaika, 2014). Eguneroko errealitatean, antolatutako jarduera asko parte hartzen duten haur guztientzat beti hain positiboak eta onuragarriak ez direla ikusten da (Zulaika, 2006).

Generoari dagokionez, monitore gehienek neska eta mutilen parte hartzea antzekoa dela uste dute, gutxi batzuk baino ez dira honekin bat ez datozenak. Hau, kirol eskaintzarekin erlazionatuta egon dateke; Allende Salazar ikastetxean kirol eskaintza zabalagoa da (8 modalitate, 4 bakarkako eta 4 kolektibo) eta monitore guztien neska eta mutilen parte hartzea antzekoa dela esan dute. Seber Altube ikastolan, berriz, monitoreek ez dute oso argi ikusten parte hartzea antzekoa denik. Hemen, kirol modalitate gutxiago eskaintzen dira, 4 modalitate eta guztiak taldekakoak dira.

Hala ere, neska eta mutilen parte hartzea antzekoa izateak ez du berdintasuna bermatzen. Neskek ez dituzte Eskola Kirolak eskaintzen dituen abantailak mutilek bezainbeste gozatzeko aukera, izan ere, ez dute protagonismo handirik hartzen eta maiz beraien lekua besterik gabe uzten dute. Gainera, gizarteko mezuen bidez, kontzienteki edo inkontzienteki, neskek kirola gustuko ez dutela, kontaktu fisikoa saihesten dutela, lagunekin egotea irabaztea

baino nahiago dutela... bezalako mezuak barneratzen dira eta neskekin izaten den harremanagatik, hauek haienganako interesa ez dela mutilenganako bezainbestekoa konturatzen dira (Azurmendi, 2017).

Horretaz gain, esan beharra dago monitore guztiek Eskola Kirola euskara sustatzeko gune aproposa dela uste dutela eta euskara sustatzen saiatzen direla. Datu hauek nabarmentzekoak direla esan daiteke, haur askorentzat eskola euskaraz hitz egiteko duten eremu bakarria delako; eta gaur egun ikastetxe askotan haur eta gazteek beraien artean gaztelaniaz hitz egiteko joera dutela kontuan hartuz, Eskola Kirolean euskara sustatzen saiatzen direla ikustea eskertzekoa da.

Emaitzen atalean, Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuen inguruko baieztapenetan askotariko erantzunak jaso direla ikusi ahal izan da. Marko teorikoan aipatu den moduan, arriskuetaiko bat gehiegizko lehiakortasuna izan daiteke, izan ere, Eskola Kirolaren helburua partaideen garapen integrala lantzea bada ere, hau da, formatzailea eta hezitzailea izatea; askotan zaila izaten da goi mailako kirolek aldentzea eta errendimenduari eta emaitzari garrantzi handia ematen zaie (Zulaika, 2006). Bi ikastetxe hauetako monitore gehienak bat datoz irabaztea garrantzitsuena den gizarte lehiakor batean bizi garelaren ideiarekin eta honen aurrean argi dute beraien helburua hezitzailea dela eta garaipena edota talde nagusitasuna bezalako balioak ez transmititzen saiatzen dira. Hortaz, hemen arreta jartzen dutela esan daiteke.

Beste arriskuetaiko bat haurrek beraien buruei ezartzen dizkieten helburu zorrotz eta altuak dira (Arruza, 2002) eta monitore gehienak bat datoz honekin. Haurrak haurrak diren heinean, miresten dituzten izarrak imitatzen saiatzen dira baina momentu batean helmuga horietara iritsiko ez direla konturatuko dira. Hori horrela izanik, eta helduok hori jakinik, helburu errealistak ezartzen lagundu behar diegu, aurrerago hain zabalduak diren porrot sentimenduak saihesteko (Agirre et al., 2013a).

Ikerketan parte hartutako Allende Salazar ikastetxean eta Seber Altube ikastolan aritzen diren Eskola Kiroleko monitoreen gehiengoak ez du uste kirol lehiaketetan gehiegizko presioa dagoenik, bai ordea, kirol lehiaketan zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten duela. Monitoreek lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragin dezakeela ikusteak eta balorazio horiek haurrak kanpoko mezuekiko sentiberak diren garaian ematen direla jakiteak (Zulaika, 2006), honetan arreta jartzea ekar dezake arrisku honen eragin negatiboak murriztuz.

Haurrak goizegi kirol batean espezializatzea ere arriskutsua izan daiteke haurrak kirol edo postu bakarrean aritzean pertsonaren aberastasun motorea mugatzen delako eta baita etorkizunerako kirol ohitura anitzak garatzeko aukera ere (Zulaika, 2006). Esan beharra dago,

%50a bat datorrela gaur egun kirol modalitate bateko espezializazioa adin goiztiarrean burutzen delaren ideiarekin.

Bestalde, monitore gehienak bat datoz erakunde pribatuak eta kirol elkarteak ikastetxeetara haur bila gero eta goizago joaten direlarekin (Zulaika, 2006) eta baita ikuskizun kiroleko zenbait portaera itsusi haurren kirolera zabaltzen direlarekin ere (González, 2004). Azken honetaz kontziente izatea garrantzitsua da monitoreek goi mailako kiroleko portaera itsusiak Eskola Kirolera zabaltzea daitezkeela jakinik, horietan arreta jar dezaketelako eta ondorioz, hurrei horien inguruan hausnartarazi diezaiekete eta jarrera horiek zuzentzen saiatu.

Aldiz, haurrak oso goiz hasten dira lehiatzen baieztapenean ez da nabarmendu daitezkeen erantzunik jaso. Aurreko paragrafoetan esandakoa kontuan hartuz, bi ikastetxe hauetako parte hartu duten monitoreak orokorrean Eskola Kirolean aurki daitezkeen arriskuez kontziente direla esan daiteke. Hala ere, badira hainbat arrisku horietaz kontziente ez direnak, ondorioz, jasotako erantzun asko ez direnez aho batekoak izan, alderdi honetan oraindik badagoela zer egin esan daiteke. Ez dugu ahaztu behar, monitoreak arriskuez kontziente badira errazagoa dela horietan arreta jartzea eta horiek ez gertatzeko ahaleak egitea.

Azkenik, esan beharra dago, parte hartu duten monitore erdiek baino gehiagok Gorputz Hezkuntzako profesionalek eskolaz kanpoko jardueren programazio eta diseinuan parte hartzea garrantzitsua dela uste dutela. Hau ondo dago monitore hauek Eskola Kirolean egiten dena eskolarekin eta Gorputz Hezkuntzako irakasgaiarekin erlazionatuta dagoela ikusten dutelako, hau da, eskolatik eta Eskola Kiroleatik mezu berak transmititzea garrantzitsua dela uste dute. Dena den, aipatzekoa da monitore batzuk ez dutela erlazio hori ikusten.

Beraz, laburbilduz, bistan da jarduera fisikoa edota kirola hezkuntza-tresnatzat hartzen dela, baina ematen zaion prestakuntza-izaera ez da erabiltze hutsaz agertzen den zerbait. Kirolak edota jarduera fisikoak aukera hori benetan gara dezan, beharrezkoa da ekintza-lerro zehatzak dituzten proposamenak garatzea (Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Hori horrela izanik, baliabide hauek banakoaren garapen integralean lagun dezaten, giro egoki batean garatu behar dira zeinetan Eskola Kirolean parte hartzen duten agente desberdinen orientabidea oso garrantzitsua den (Gutiérrez, 2004). Ondorioz, Eskola Kirolean beste aspektu batzuen artean ikastetxe bakoitzeko helburu hezitzaileak eta irakats-metodo desberdinak ezagutzen dituzten pertsona prestatuenak aritu beharko ziren (Romero, 2001).

Argi izan behar dugu leku askotan zabaldua dagoen ereduak ez duela haurrek etorkizunean bizi-ohitura gisa jarduera fisikoarekiko zaletasuna bereganatzea bermatzen. Errealitatean jasotako emaitza honek, eskoletan guztiontzako kirola aldarrikatzera bultzatzen

gaitu, hau da, txapeldunak sortzera bideratutakoa baino gehiago guztion partaidetza bilatzen duenera (Zulaika, 2006).

7.HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:

Atal honetan, gaur egungo ikastetxe askotako Eskola Kirola eredu tradizionaletik (errendimendura bideratutakotik, emaitza prozesuari lehenesten zaionetik, garaipena lortzeko jarrera oldarkor eta bortitzak sortzen dituenetik, selektiboa denetik...) urrundu eta ezaugarri gisa partehartzaileen formakuntza integralean laguntzea, espezializazio goiztiarra ekiditea, lankidetzeta lehiaketari lehenestea, heziketa komunitateko agente guztien kolaborazioa bilatzea... dituen eredu alternatibo (Agramonte, 2011) batera hurbiltzeko zenbait aholku edota proposamen biltzen dira.

Aurretik aipatu bezala, kasu gehienetan, eskolaz kanpoko kirol jarduera hauek ez dira oso modu egokian burutzen, sarri hezkuntza asmoetatik urruntzen direlako eta eskola-ordutegiko Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren helburuekin inolako loturarik ez dutelako (Macazaga, 2005). Hori horrela izanik, Eskola Kirola benetan elementu formatzaile bat izatea nahi bada, kirol-jarduerak garatzeko baldintzak funtsezkoak izango dira, hezkuntza-irizpideetan oinarritu beharko baitziren. Beraz, jardueran parte hartzen duten eragileek (antolatzaileek, gurasoek, lagunek eta batez ere, hurrekin zuzeneko harremana duten monitoreek) duten ikuspegia erabakigarria izango da (Gutiérrez, 2003).

Eskola Kiroleko monitoreek hezkuntza-ekintza jasotzen duten subjektuekin harreman zuzena dutenez, ikuspegi hezitzailea bermatzeko gakoak direla esan daiteke (Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Ondorioz, Eskola Kirolaren testuinguruan gaudenez, funtsezkoa da entrenatzailea edo monitorea hezkuntza agentetzat hartzea, hau da, entrenatzailea hezitzailetzat hartzea (Gímenez, 2006 *in* Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Izan ere, ezin dugu ahaztu hurrengan eragin handia duela, monitorea ez baita jokalaria fisikoki, teknikoki eta taktikoki prestatzeko ardura duen entrenatzailea soilik; esplizituki eta inplizituki zenbait balio transmititzen dituen hezitzailea ere bada (Monjas, Ponce eta Gea, 2015). Hortaz, Eskola Kirolean, aspektu didaktikoez gain ikastetxeen hezkuntza helburuak eta irakaskuntza-metodologia desberdinak ezagutzen dituzten pertsona prestatuenean egin beharko lukete lan (Romero, 2001).

Eredu tradizionaletik urrundu eta ikuspegi hezitzaileak indar gehiago duen Eskola Kirolera hurbiltzeko, ezinbestekoa da testuinguru horretan helburu nagusi gisa garapen orekatuan laguntzea eta balioak indartzea dituen Heziketa Kirola bultzatzea (Blázquez, 1995). Hori betetzeko asmoz, zenbait autorek ondorengo proposamenak egiten dituzte:

- Adin goiztiarretan jolasetatik abiatzea eta adin aurreratuagoetan ere jolasari eustea.
- Teknika praktika-egoera errealetik abiatuz irakastea, hau da, teknikara testuinguru errealean sortzen den beharragatik iristea.

- Materialak, espazioak... ikasleen ezaugarrietara (adina, gaitasun-fisikoak, koordinazio gaitasunak...) egokitzea.
- Transferentzia erraztuko duten espezialitate desberdinetako alderdi komunak dituzten jarduerak erabiltzea.
- Haurrengan auto-behaketa, autokontrola eta autoebaluazioa sustatzea.
- Kooperazioa eta talde-lana eskatzen duten jarduerak diseinatzea.
- Arrakasta ahalbidetzen duten jarduerak proposatzea, ikasleen eskura dauden zailtasunak planteatuz (horrek motibazioa areagotzea ekarriko luke).
- Espezializazio goiztiarrean ez eragiteko posizio desberdinetatik igarotzea (Agramonte, 2011).

7.1.Garapen integrala.

Ikerketa askotatik ondoriozta daitekeenez, kirolak pertsonen garapen integrala bultzatzeko, hau da, kirolariei beraien nortasuna garatzea ahalbidetu diezaion eta balio eta bertute desiragarrienak sustatu daitezen, kirola edota jarduera fisikoa konfiantzazko giro batean egitea funtsezkoa da (Gutiérrez, 2004).

7.2.Balioak.

Balioen garapenari dagokionez, kirolean parte hartzeak ez du bermatzen besterik gabe balio positiboak sustatuko direnik. Onura horiek ziurtatzeko baldintza batzuk bete behar dira, hala nola, balioak garatzeko asmoa jardueraren antolaketan ezarrita egotea; programa ondo planifikatuta, diseinatuta eta sistematizatuta egotea eta parte hartzen duten eragileek ikuspegi hezitzailearekin bat egitea (Zulaika, 2014).

Horretaz gain, kirolak balioetan hez dezan autoezagutza bultzatu eta autokontzeptua hobetzeko aukera eman beharko luke, arazoak konpontzeko elkarrizketa sustatu, guztien partaidetza bilatu, autonomia pertsonala bultzatu, porrota hezkuntza-elementu gisa baliatu, norbanakoen arteko desberdintasunak errespetatzea eta onartzea sustatu eta bizikidetzat bultzatzen duten gizarte-trebetasunak garatzeko jolas, entrenamendu eta lehia egoerez baliatu beharko litzateke (Amat eta Batalla, 2000).

7.3.Generoa.

Eskola Kirolaz eta generoaz hitz egiten badugu, arlo honetan berdintasuna lortze aldera aurrerapauso handiak eman badira ere, oraindik badago zer egin. Azken urteetan nesken parte hartzea nabarmen areagotu bada ere, (Monteagudo et al., 2014), esan beharra dago parte hartze handitze horrek ez dakarrela berdintasuna. Marko teorikoan aipatu den bezala, Eskola Kirolean aritzen diren neskak gehiago izan arren, hauek ez dituzte baliabide honen

ekarpenez mutilek bezainbeste gozaten, ez baitute protagonismo handirik hartzen eta beraien lekua besterik gabe uzten dute. Hori horrela izanik, neskek protagonismoa eskuratze aldera, neska-mutilek banatuta jokatzeko ideia interesgarria izan liteke, proposamen honek nesken partaidetza sustatzea ahalbidetzen duela ikusi baita (Azurmendi, 2017).

Horretaz gain, argi izan behar dugu hezkidetzan hezi nahi bada funtsezkoa dela modu kontzientean lantzea; eta horretarako ezinbestekoa da hausnarketa prozesu sakona egitea edota genero ikasketak burutzea. Izan ere, kontzienteki edo inkontzienteki neskek jarduera fisiko gogorra gustuko ez dutela, kontaktu fisiko saihesten dutela edota lagunekin egotea irabaztea baino nahiago dutela bezalako ideiak barneratzen dira eta neskek beraienganako interesa mutilenganakoa bezainbestekoa ez dela konturatzen dira (Azurmendi, 2017). Bestalde, komunikabideetan ez dira nesken kirolari ereduak behar bezala erakusten (askotan genero-estereotipoak indartuta eta lorpenak gutxietsita agertzen dira) eta horrek, eragina du neska kirolarien parte hartzean, ez baitituzte ereduak ("Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana", 2013). Ondorioz, honi aurre egiteko ezinbestekoa da Eskola Kirolean arituko diren monitoreek hezkidetzako prestakuntza jasotzea eta benetan ikastea hezkidetzan oinarritutako kirol esperientziak sortzen (Azurmendi, 2017) eta komunikabideek kirol-arlo guztietan emakumeen presentzia islatzea beharrezkoa izanez gero espazioak gehituz eta betiere estereotipo sexistekin apurtuz eta berdintasun irudiak transmitituz ("Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana", 2013).

7.4. Multikirola.

Hau guztia kontuan hartuz, Eskola Kirolean multikirola egiteko aukera izatea oso proposamen interesgarria izan liteke. Lehiaren aurrean izaera partehartzailea bultzatzen duen jarduera honek dituen abantailak asko baitira. Esaterako, kirol modalitate desberdinak probatzeko aukera eskaintzen du haurrei kirol bakoitzak eskaintzen dizkien aukerak eta eremu bakoitzean dituzten gaitasun eta trebetasunak ezagutzea ahalbidetuz. Gainera, kirol desberdinekin atal desberdinak lantzen dira, motrizitate fina, koordinazioa... (Monteagudo et al., 2014). Horretaz gain, aipatzekoa da, Eskola Kirolean multikirola egiteko aukera eskaintzean espezializazio goiztiarra, kirol lehiaketan egon ohi den gehiegizko presioa... bezalako arriskuak murrizten lagun dezakeela.

7.5. Ebaluzioa.

Azkenik, hezkuntza-proiektu guztietan ebaluazio prozesua presente egotea onuragarria izango litzateke. Horri esker, aurretik ezarritako helburuetatik urruntzen diren programaren

alderdiak ezagutu daitezke eta baita behar diren zuzenketa-mekanismoak ezarri ere (Monteagudo et al., 2014).

Beraz, laburbilduz, eskola adinean dauden kirol-jarduera edota jarduera fisikoetan irakasten duten pertsonen prestakuntza eza dela eta, kasu gehienetan ez da behar bezalako esku-hartzea garatzen; izan ere, ez dira ikasleek heziketa formatiboa eta integrala lor dezaten behar adina baliabide didaktiko eta metodologiko erabiltzen (Campos, 2007). Hortaz, funtsezkoa da Eskola Kirolean arituko diren pertsonen, beraien esku-hartzea behar bezala garatzea ahalbidetuko dien gutxieneko formakuntza bat jasotzea.

8.LANAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK:

Lanaren azken atal honetan, izenburuan irakur daitekeenez, egindako ikerketa txiki honen ahulgune eta indargune posibleak irakur daitezke.

Ahulguneei dagokienez, esanguratsuen a ikerketa erabat kuantitatiboa dela da; izan ere, ikerketa erantzun itxiko galdetegietan oinarritzen da eta horrek bere desabantailak ditu. Alde batetik, ikerketa kuantitatiboak ez du ahalik eta informazio gehien ateratzen, honen emaitzak azterketek ematen dituzten zenbakietan oinarritzen baitira, beste faktorerik kontuan izan gabe. Ikerketa kualitatiboa, aldiz, erabiltzen diren teknikei esker (elkarrizketa eta behaketa, esaterako) subjektuekin komunikatzen da eta ezkutuan dagoen informazioa lortzeko aukera ematen du (Sarduy, 2007).

Beste alde batetik, galdetegiak anonimoak izan arren, hauek bete dituzten pertsonak benetan pentsatzen edo egiten dutena erantzun beharrean “erantzun egokitzat edota zuzenentzat” hartzen dena hauta dezakete. Hori horrela izanik, eta ikerketa erantzun itxiko galdetegietan soilik oinarritu dela kontuan hartuz, ezinezkoa da jakitea jasotako erantzunak errealitatean ematen denarekin bat datozen; galdetegietan jasotako erantzunak ez baitira errealitatean ikus daitekeenarekin alderatu. Beraz, ikerketa baten informazio analisisa fidagarria izan dadin, metodologia kualitatibo eta kuantitatiboa uztartu beharko lituzke (Sarduy, 2007).

Horretaz gain, ondorioen atalean aipatu den bezala, ikerketa burutu ahal izateko sortutako galdetegien item guztiak ez direla guztiz ondo planteatu esan daiteke. Izan ere, Eskola Kiroleko monitoreei zuzendutako galdetegiko itemetako batean, 21.nean hain zuzen ere, ez dira espero ziren emaitzak jaso. Hau esaldia zentzu positiboan edo negatiboan interpreta zitekeelako gertatu dela uste da, erabilitako *erne* hitzak konnotazio desberdinak izan baititzake.

Halaber, ezin dugu ahaztu ikerketa txiki honetan lortutako emaitzak ezin direla gizarte osora orokortu, lagina aukeratua eta mugatua izan delako. Baina hau baliagarria izan daiteke etorkizunean ikerketa mota hau zabaltzeko eta lagin adierazgarriago batera iristeko.

Hala ere, ikerketa txiki honek bere indarguneak ere badituela esan daiteke. Lanean zehar esan bezala, gaur egungo Eskola Kirolaren egoeran aurrerapauso handiak eman badira ere oraindik badago zer egin. Hori horrela izanik, inguruko ikastetxeetan Eskola Kirola bezalako baliabide aberasgarri batek ematen dituen aukerez baliatzen diren ezagutzea eta aurki daitezkeen arriskuez kontziente diren jakitea baliagarria izan da ikastetxe horietako Eskola Kirol egoeraren irudi orokor bat izateko. Baina aldi berean, ikastetxe horietako Eskola Kiroleko arduradun zein monitoreei galdetegiak luzatzerakoan ahalmen hezigarri hain handia duen

baliabide horren inguruko zenbait ideien inguruan hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko grina pizteko aukera txiki bat egon dela esan daiteke.

9. BIBLIOGRAFIA:

2013. Kirol esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plana.

Abundis, V. M. (2016). Beneficios de las encuestas electrónicas como apoyo para la investigación. *Tlatemoani: revista académica de investigación*, 22, 168-186.

Agirre, N., Aizarna, K., Apezetxea, M., Azpiroz, A., Garmendia, I., Larrañaga, I., Larreta, A., Muñoa, A., Oiarbide, J., Txapartegi, J., Urbe, A. eta Usobiaga, A. (2013a). Kirola ondo pasatzeko ala onena izateko? *Hazi hezi*, 6, 46-49.

Agirre, N., Aizarna, K., Apezetxea, M., Azpiroz, A., Garmendia, I., Larrañaga, I., Larreta, A., Oiarbide, J., Txapartegi, J., Urbe, A. eta Usobiaga, A. (2013b). Kirolean ere hezi egiten da. *Hazi hezi*, 7, 34-35.

Agramonte, E. A. (2011). El deporte educativo. *Pedagogía magna*, 11, 72-79.

Amat, M. eta Batalla, A. (2000). Deporte y educación en valores. *Aula de Innovación Educativa*, 91, 10-13.

Arruza, J. A. (2002). Nuevas perspectivas acerca del deporte educativo. *Universidad del País Vasco. Gobierno Vasco*.

Azurmendi, A. (2017). Eskola Kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatua: datuetan oinarritutako proposamena.

Blanco, N. eta Alvarado, M. E. (2005). Escala de actitud hacia el proceso de investigación científico social. *Revista de Ciencias Sociales*, 11 (3), 537-544.

Blázquez, B. (2008). Nuevos enfoques en contenidos y metodología de las actividades físico-deportivas en centros escolares. In Excmo. Ayuntamiento de Dos Hermanas (ed.), *V Congreso Nacional y III Congreso Iberoamericano de Deporte en Edad Escolar. Nuevas Tendencias y Perspectivas de Futuro* (pp. 71-82). Sevilla: Excmo, Ayuntamiento de Dos Hermanas.

Blázquez, D. (1995). A modo de introducción. In D. Blázquez (comp.), *La iniciación deportiva y el deporte escolar* (19-46 or.). Barcelona: Inde.

Campos, A. (2007). *Situación profesional de las personas que trabajan en funciones de actividad física y deporte en la Comunidad Autónoma Valenciana (2005)*. Valencia: Universidad de Valencia.

Castañer, M., Grasso, A. E., López, C., Mateu, M., Motos, T. eta Sánchez, R. (2006). *La inteligencia corporal*. Barcelona. Graó.

Castejón, F. J. (2005). Una aproximación a la utilización del deporte. El proceso de enseñanza aprendizaje. *Lecturas: Educación Física y Deportes*, 80, 1-1.

Contreras, O. (2006). El carácter problemático del aprendizaje de los valores en el deporte. In P. Gil eta A. López (Coords.), *Juego y deporte en el ámbito escolar: aspectos curriculares y actuaciones prácticas* (157-180 or.). Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.

Daley, A.J. (2002). School based physical activity in the United Kingdom: Can it create physically active adults? *Quest*, 54, 21-33.

Durán, J. (2013). Ética de la competición deportiva: valores y contravalores del deporte competitivo. *Materiales para la Historia del Deporte*, 11, 89-115.

Fabila, A. M., Minami, H. eta Izquierdo, M. J. (2012). La Escala de Likert en la evaluación docente: acercamiento a sus características y principios metodológicos. *Perspectivas docentes*, 50, 31-40.

Fernández Barrionuevo, E. (2011). El valor del realismo en las tareas de educación física bilingüe. *Revista digital educativa Wadi-red*, 1, 27-32.

Fox, K. R. (1996). Physical activity promotion and the active school. In N. Armstrong (Ed.), *New directions in physical education* (94-109 or.). London: Cassel Education.

Fraile, A., de Diego, R. eta Boada, J. (2011). El perfil de los técnicos del deporte escolar en un contexto europeo. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte*, 11(42), 278-297.

Fraile, A. (2001). Una propuesta de deporte recreativo para el tiempo extraescolar. In V. Manzón, D. Sarabia, F.J. Canales eta F. Ruiz (Coords.), *La enseñanza de la Educación Física y el Deporte Escolar. Actas del IV Congreso Internacional* (549-600 or.). Santander: A.D.E.F. Cantabria.

Fraile, A. (2005). Hacia un deporte escolar educativo. In A. Fraile (Coord.), *El deporte escolar en el siglo XXI: análisis y debate desde una perspectiva europea* (9-28 or.). Barcelona: Graó.

Fraile, A. (2008). *Metodología de la enseñanza y entrenamiento deportivo aplicado al fútbol*. Federación Española de Fútbol.

Giménez, J., Abad, M. eta Robles, J. (2009). La enseñanza de deporte desde la perspectiva educativa. *Revista Wanceulen E. F. Digital*, 5, 91-103.

- González, A. M. (2005). Medidas de promoción de la actividad deportiva de las chicas en el deporte escolar. *Bilbao: Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia. Dirección General de Deportes.*
- González, C. (2004). El deporte, una potencial herramienta formativa. *Apunts. Educación Física y Deportes, 77*, 97-101.
- González, M. D. eta Campos, A. (2010). La intervención didáctica del docente del deporte escolar, según su formación inicial. *Revista de psicodidáctica, 15*, 101-120.
- Guerra, Y. M., Rubio, A. M. M. eta Silva, N. C. B. (2014). Formación Integral, importancia de formar pensando en todas las dimensiones del ser. *Educación y desarrollo social, 8 (1)*, 48-69.
- Gutiérrez, M. (1998). Desarrollo de valores en la educación física y el deporte. *Apunts. Educación Física y Deportes, 51*, 100-108.
- Gutiérrez, M. (2003). Introducción. In M. Gutiérrez, *Manual sobre valores en la Educación Física y el deporte* (25-28 or.). Barcelona: Paidós.
- Gutiérrez, M. (2004). El valor del deporte en la educación integral del ser humano. *Revista de educación, 335*, 105-126.
- Heinemann, K. (2002). Deporte para inmigrantes: ¿instrumento de integración? *Apunts. Educación Física y Deportes, 68*, 24-35.
- Hernández, Y. (2014). Deporte Escolar y Educación en valores: Fundamentación desde un enfoque sociocultura y pedagógico. *Materiales para la Historia del Deporte ,12*, 111-134.
- Kyu, H. H., Bachman, V. F., Alexander, L. T., Mumford, J. E., Afshin, A., Estep, K., ... & Cercy, K. (2016). Physical activity and risk of breast cancer, colon cancer, diabetes, ischemic heart disease, and ischemic stroke events: systematic review and dose-response meta-analysis for the Global Burden of Disease Study 2013. *bmj, 354*, i3857.
- Lleixà, T. (2005) Actividades físico-deportivas extraescolares y diversidad: implicaciones en la formación de técnicos. In N. J. Bores (Coord.), *La formación de los educadores de las actividades físico-deportivas extraescolares* (157-171 or.). Palencia: Ayuntamiento de Palencia.
- Macazaga, A. (2005). El modelo de deporte escolar en el Plan Vasco de Deporte. In A. Fraile (Coord.), *El deporte escolar en el siglo XXI: análisis y debate desde una perspectiva europea* (171-182 or.). Barcelona: Graó.

- Medina, F. X. (2002). Deporte, inmigración e interculturalidad. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 68, 18-23.
- Merino, B. eta González, E. (1999). *Actividad física y salud: Guía para padres y madres*.
- Monjas, R., Ponce, A. eta Gea, J. M. (2015). La transmisión de valores a través del deporte. Deporte escolar y deporte federado: relaciones, puentes y posibles transferencias. *Retos*, 28, 276-284.
- Monteagudo, M.J., Ahedo, R., Doistua, J. eta Richter, F. (2014). *Aportaciones al Modelo de Deporte Escolar en el Territorio Histórico de Bizkaia*. Instituto de Estudios de Ocio. Facultas de Ciencias Sociales y Humanas. Universidad de Deusto.
- Organización Mundial de la Salud. (2010). *Recomendaciones mundiales sobre actividad física para la salud*.
- Ortúzar, I. (2004). *El deporte escolar y el profesorado de educación física*. (Tesis doctoral). Leioa. Bizkaia.
- Ortuzar, I. (2006). Deporte escolar y proyecto educativo de centro. *Ikastaria*, 15, 81-88.
- Prat, M., Font, F., Soler, S. eta Calvo, J. (2004). Educación en valores, deporte y nuevas tecnologías. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 78, 83-90.
- Prat, M., Soler, S., García, V. eta Pascual, O. (2002). Los valores en la educación física y el deporte. *Revista Iberoamericana de psicomotricidad y técnicas corporales*, 6, 5-11.
- Ramón-Cortés, F. (2011). Cuidado con la obsesión por ganar. *El País Semanal* https://elpais.com/diario/2011/09/11/eps/1315722413_850215.html webgunetik berreskuratua.
- Ramos, F. eta Ruiz Omeñaca, J. V. (2011). La educación física en centros bilingües de primaria inglés-español: de las singularidades propias del área a la elaboración de propuestas didácticas prácticas con AIBLE. *Revista Española de Lingüística Aplicada*, 24, 153-170.
- Romero, S. (2001). Nuevos retos desde el currículo de Educación Física en la formación deportiva escolar. In V. Mazón, D. Sarabia, F. J. Canales, F. Ruiz eta R. Torralba (Coords.), *Reflexiones y perspectivas de la enseñanza de la educación física y el deporte escolar en el nuevo milenio* (29-44 or.). Santander: A.D.E.F. Cantabria.
- Ruiz Omeñaca, J. V., Ponce de León, A., Sanz, E. eta Valdemoros, M. A. (2015). La educación en valores desde el deporte: investigación sobre la aplicación de un programa integral en deportes de equipo. *Retos*, 28, 270-275.

- Ruiz, G. eta Cabrera, D. (2004). Los valores en el deporte. *Revista de educación*, 335, 9-19.
- Sarduy, Y. (2007). El análisis de la información y las investigaciones cuantitativa y cualitativa. *Revista cubana de salud pública*, 33.
- Vizcarra, M. T. eta Garay, B. (2014). Zenbat aurreratu da gorputz-hezkuntzan eta kirolean genero ikuspegitik? *Jakingarriak*, 74, 46-56.
- Zulaika, L. M. (2006). Kirol Hezitzailea: balizko onurak eta errealitateko arriskuak. *Ikastaria*, 15, 113-121.
- Zulaika, L. M. (2014). Kirola balioak hobetzeko lanabes gisa. *Jakingarriak*, 74, 24-37.

10.ERANSKINAK:

I.ERANSKINA: 1.galdetegia: Eskola Kirol programaren nondik norakoak.

Galdetegi hau Eskola Kirolaren inguruan ikerketa txiki bat egin ahal izateko sortua izan da. Honen helburua ikastetxeko Eskola Kirolari buruzko informazio orokorra biltzea da. Jasotako datuak Gradu Amaierako Lanean baino ez dira erabiliko eta erabat anonimoak izango dira.

INFORMAZIO OROKORRA					
Ikastetxea					
Helburua					
Orientazio nagusia (<i>adierazi bakar bat X batekin</i>)	Kirol-partaidetza	Errendimendurako hastapenak	Osasuna	Aisialdia	Bestelakoak (Zehaztu) _____
Ekimenaren kudeaketan inplikaturako agenteak (<i>adierazi X batekin</i>)	Ikastetxea	Guraso Elkarteak	Udala	Kluba	Bestelakoak (Zehaztu) _____
Zehaztu inplikaturako agente bakoitzaren zeregina azpiko laukietan					
Nork darama lidergoa? (<i>adierazi X batekin</i>)	Ikastetxea	Guraso Elkarteak	Udala	Kluba	Bestelakoak (Zehaztu) _____
Ba al dago kirol koordinatzailearik? (<i>adierazi X batekin</i>)	Ez	Bai	<i>(Baietz erantzunez gero)</i> Zehaztu koordinatzaile mota X batekin	Ikastetxeko koordinatzailea	
				Udalekoa	
				Eskualdekoa	
				Bestelakoak (Zehaztu) _____	
Kirol koordinazioa betetzen duen pertsona (<i>kirol-koordinatzailea egonez gero</i>)	Ikastetxeko G.H. ko irakaslea	Ikastetxeko beste irakasle bat	Kirol-teknikaria	Guraso-elkarteko kidea	Bestelakoak (Zehaztu) _____
Kirol - koordinatzailearen prestakuntza (<i>kirol-koordinatzailea egonez gero</i>)	G.H. ko lizentzia tua	Irakaslea	Batxilergoa	LH	Bestelakoak (Zehaztu) _____
Kirol- koordinatzailearen zereginak (<i>kirol-koordinatzailea egonez gero</i>)					
Kirol -koordinatzailea boluntarioa al da? (<i>kirol-koordinatzailea egonez gero</i>)	Ez			Bai	

EKIMENAREN EDO PROGRAMAREN KIROL ESKAINTZA						
Kirol-modalitateak		Modalitateen kopuru osoa zehaztu: _____	Banakako modalitateen kopurua zehaztu: _____	Modalitate kolektiboen kopurua zehaztu: _____		
Ba al dago kirol lehiaketa ofizialik?	Ez	<i>Halakorik egonez gero zehaztu modalitateak</i> _____ _____	Ba al dago kirol lehiaketa ez-ofizialik?	Ez	<i>Halakorik egonez gero zehaztu modalitateak</i> _____ _____	Bai
	Bai					
Multikirola eskaintzen al da?	Ez	Multikirolean parte hartzeko gehieneko adina	_____	Kirol espezializatorako adina	_____	urte
	Bai		urte			
Ebaluaziorik egiten al da?	Bai	Ze ebaluazio mota egiten da?				
	Ez					
Emaitzak erabiltzen al dira ekimena hobetzeko?	Bai					
	Ez					

Google Formularios formatuan:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLScS5iAASmDKA8Wiu8Wunwtu1AOZoGKpr44hoJv0dFaYq4LVFA/viewform>

II.ERANSKINA: 2.galdetegia: Eskola Kirolaren aukerak.

Galdetegi hau Eskola Kirolaren inguruan ikerketa txiki bat egin ahal izateko sortua izan da. Honen helburua Eskola Kirolean aritzen diren monitoreek baliabide honek ematen dituen aukeren inguruan dituzten ideiak ezagutzeko da. Jasotako datuak Gradu Amaierako Lanean baino ez dira erabiliko eta erabat anonimoak izango dira.

Ikastetxea		Irakasten den kirola	
Adina		Sexua	Emakumea Gizona
Formakuntza		Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua. Gorputz Hezkuntzan espezializatutako irakaslea. Jarduera Fisiko eta Kirol animazioan goi teknikaria. Kirol teknikaria. Beste bat:	
Helburu nagusia		Jolasa.	Osasuna hobetu.
		Hezitzailea.	Adierazpena.
		Lehiaketa.	Kirolarekiko atxikimendua.
		Harremanak.	Beste bat:
Gailentzen diren aspektuak		Teknika. Taktika. Alderdi fisikoak. Jarrerazko alderdiak.	
Erabilitako metodologia		Aginte zuzena. Ikerketa edo aurkikuntza. Biak. Beste bat:	

Erabat desados	Desados	Ez ados / Ez desados	Ados	Erabat ados
1	2	3	4	5

	1	2	3	4	5
1.Eskola Kirolak garapen fisikoan laguntzen du eta osasuna hobetzen du.					
2.Haurrak jarduera fisikoak osasunean duen garrantziaz eta onurez kontziente izan daitezen hezten dut.					
3.Eskola Kirolaren bitartez, haurrek beraien konfiantza eta autoestimua hobetzeko aukerak dituzte.					
4.Eskola Kirolean, jarduera fisikoa egiteak ondorio emozional onuragarriak ditu.					
5.Momentu oro haurrek jarduera fisikoa emozio positiboekin erlaziona ditzaten bilatzen hezten dut.					
6.Eskola Kirolak jendea ezagutzeko eta beste batzuekin harremantzeko aukerak eskaintzen ditu.					
7.Eskola Kirolak integrazioa errazten du.					
8.Harremanak sustatzen saiatzen naiz.					

9.Planteatutako jardueretan aldaketak egiten ditut talde osoaren beharretara egokitzeko.					
10.Eskola Kirolaren bitartez joko garbia, araukiko errespetua, denon artean saiatzea eta taldearen interesak norberaren interesen aurretik lehenestea... bezalako balio positiboak transmititu daitezke.					
11.Eskola Kirolaren bitartez harrokeria, handikeria, halabeharrez irabazi nahia, agresibitatea, mespretxua... bezalako balio negatiboak transmititu daitezke.					
12.Haurrak arauak errespetatuz, engainatzen ez saiatuz, joka ditzaten saiatzen naiz.					
13.Haurrak elkar errespetu ditzaten ahalegintzen naiz, arazoak elkarrizketaren bitartez ebaztea bilatuz.					
14.Hurrek taldearen onura bilatuz joka ditzaten bilatzen dut.					
15.Haurrak elkar lagun diezaioten ahalegintzen naiz.					
16.Haurrak elkarlanean aritzeko gai izan daitezen saiatzen naiz.					
17.Hurrek jarduera fisikoa egiterakoan beharrezkoak diren trebetasun eta teknikak hobetzeko interesa izan ditzaten bilatzen dut.					
18.Haurrak gorputzaren zainketaren eta higiene ohituren garrantziaz kontziente izan daitezen saiatzen naiz.					
19.Hurrek jolasa, partidua edota txapelketa irabaztea garrantzitsua da.					
20.Lehiaketan beste taldea baino gehiago garela sentitzea garrantzitsua da.					
21.Haurrak erneak izan daitezen saiatzen naiz.					
22.Eskola Kirolean nesken eta mutilen parte hartzea antzekoa da.					
23.Eskola Kirola euskara sustatzeko gune aproposa da.					
24.Eskola Kirolaren bitartez euskara sustatzen saiatzen naiz.					
25.Gizarte lehiakor batean bizi gara non irabaztea garrantzitsuena den.					
26.Sarri hurrek irabaztea, titular izatea... bezalako helmuga zorrotz edota altuak ezartzen dizkiete beraien buruei.					
27. Kirol lehiaketetan gehiegizko presioa egon ohi da.					
28.Kirol lehiaketak zorrotasun handiko ebaluaketa soziala eragiten du.					
29.Gaur egun, oso adin goiztiarrean burutzen da kirol modalitate bateko espezializazioa.					
30.Erakunde pribatuak eta kirol elkarteak gero eta goizago joaten dira haur bila ikastetxeetara.					
31.Ikuskizun kirolean ikusten diren hainbat portaera itsusi haurren kirolera zabaltzen da.					
32.Egun, haurrak oso goiz hasten dira lehiatzen.					
33.Garrantzitsua da Gorputz Hezkuntzako profesionalek eskolaz kanpoko jardueren programazioan eta diseinuan parte-hartzea.					

Google Formularios formatuan:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSf3_rBpSKUADL9DG7KgsDKa0wGB9bMXtd0jd7DSIrgOq8X2eQ/viewform